[illegible] zenbakia. 1999ko azaroaren 19a. JARDUN ELKARTEA

# Berrigara

Bergarako astekaria



## Nagusiak ume

**Jolas eta kanta ikastaroan 31 guraso**






**Bakarra da.**

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN
MERKATURATZEA NAHI DUZU.
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK
BETE BEHAR DITUZU,
ALDI BEREAN HAUEK ERE
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.
BIDALKETA,
ZEURE NAHIAREN ARABERA
EGITEA ESKATZEN DUZU,
BESTERIK EZ.
HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK
GARAIZ BETE DITZAZUN.
HORRELAKOXEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEAK
ATEZ ATE BANATZEN,
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.

**GUIPUZCOANA**
*Paketeen Garraio eta Banaketa*

*Beti garaiz.*

AENOR
ER
Empresa Erregistratua
ER-0626/2/97

IQNet
CERTIFIED QUALITY SYSTEM
ISO 9002



# Maltzaga-Urbina

**Roberto Izagirre**

Joandako zazpi urteetan eta lana dela medio, gaur bai eta bihar baita, egunero Gasteizerako joanetorria egin beharra tokatu zait. Gainera, loto edo kiniela milagrosoren batek (milagrosua benetan, ez baitut gabonak arte zentimorik ere jokatzen!) patrikak sosez betetzen ez badit, beste hainbat urtetan ere –eta horrela komeni– jarraitu beharko dut txango bera egiten. Bestetik, gurasoek eta jaioterriak, Eibarko bidean oso maiz jarri naute azken urteetan.

Hortaz, badirudi, balizko autopista batek eragin handia izan dezakeela nire bizitzan. Hala ere, dena kontuan hartuta, nire jarrera garbia da: ez dut errepide berririk nahi, dagoena konpondu eta nahikoa.

Ez nago ni oso jantzia gizartearen garapenerako ezinbestekotzat saltzen digutenei esango nieke, aspaldi batean Lemoizko zentral nuklearra ere aitxaki berarekin saltzen ahalegindu zirela, eta nire uste apalean, asmo haura bertan behera geratu ondoren, inortxo ere ez da bueltatu haitzuloen garaietara, gure politiko txit-argiren batzuk esaten ziguten moduan. Bestetik, denpora franko irabazi behar omen dugu gure joenetorrietan; bai? Zertarako? gaur egun berrikuntzak direla, lanorduen murrizketak direla... gure aurrekoen aldean ordu dezente gehiago dauzkagu guretzat; eta, nik behintzat, ez dut alde horretatik bizitza kalitate hobekuntza handirik igarri nire inguruko jende askorengan. Ez dut ikusten gure aurrekoek izan zutena baino bizitza lasaiagorik, alderantziz esango nuke, oraintsu arte ezagutu ez ditugun estresak eta era horretako kalmitate ugari ikusten da gure artean. Istripu gutxiago ere jasan beharko ditugula. Horretan, akaso, arrazoia eman beharko diegu, baina aitortu beharko dute gertatzen direnak askoz ere larriagoak izango direla. Errepide arruntetan edo autopista, autobide eta halakoetan izaten diren istripuen estadistika begiratzea nahikoa da horretaz konturatzeko. Istripu horiek, gainera, errepidearen kalitatearekin izango dute zerikusia, bai, baina baita gizarte latz honek ezartzen digun zoramenarekin, eta horrek ez du onera egingo.

*"Ez diot nik arrazoi handirik ikusten datorkigun obra erraldoi horri; ez bada behintzat enpresa erdi-estatal mordoa mantentzea"*

Guzti horiek kontuan hartuta, ez diot nik arrazoi handirik ikusten datorkigun obra erraldoi horri; ez bada behintzat enpresa erdi-estatal mordo bat mantentzea; eta hori bada –nik eta nire inguruko askok uste dugun bezala– eman diezaizkiela diruak musutruk, –ejerzitoari bezala, adibidez– eta horrela, behintzat, gure mendi malden puskaren bat bere horretan mantenduko dugu (haize erroten baimenarekin), eta seguruenez, bizi kalitatean bastante gehiago irabaziko dugu.<

barruan



**Manoli Urra**

Mariaren Lagundiako historialaria

***"Ikastetxearen 200. urteurrena ospatzeak gure aurrekoen indarra erakusten du"***

8.



**Jokin Etxaniz**

Pilotaria

***"Finalaurdenetako ligillan, arerioei gauzak zailak jartzen ahaleginduko naiz"***

23.



**Ainhoa Badiola**

Maya dendakoa

***"Bergararrek kalidadia dabe gustoko; nahixago dabe gauza onengatik pagatzia"***

29.

# orain dela...

**BERGARAN GERTATUA**

***1889.*** Azaroaren 17an hil zen 1826ko urtarrilaren 5ean jaiotako Telesforo Maria Monzon-Olaso Zurbano, gero ezagutu genuen Telesforo Monzonen aitajauna. Abokatua, Historiako akademiako kidea, diputatua, Bergarako seminarioko erretorea eta herriko alkatea ere izan zen. Herriko seme kuttun izendatu zuten.

**EUSKAL HERRIAN GERTATUA**

***1901.*** Azaroaren 20an Juan Astigarrabia komunista jaio zen.

***1933.*** Azaroaren 19an, Diputazioetarako hauteskundeak; Bilbon abertzaleak nagusi.

***1939.*** Azaroaren 21ean Jose Antonio Lertxundi "Herrikotxia" bertsolaria hil zen.

**MUNDUAN GERTATUA**

***1938.*** Azaroaren 18an naziek juduen aurka egindako lehen "progrom"a; 35.000 atxilotu izan ziren.

***1947.*** Azaroaren 16an tropa britainiarrak irten egin ziren Palestinatik.

# zozketak

**BONO LOTO**

**Eguakitza 12**
1-15-18-29-44-48 (osag.38/itz.0)

**Astelehena 15**
2-6-8-15-33-41 (osag 5/itz.1)

**Martitzena 16**
15-36-37-39-40-45 (osag.22/itz.3)

**Eguaztena 17**
5-8-9-28-35-49 (osag.26/itz.7)

**PRIMITIVA**

**Zapatua 13**
3-16-20-24-35-48 (osag.40/itz.7)

**Domeka 14 *Saritzarra***
11-29-32-33-41-47 (osag.25/itz.0)

**ONCE**

**Eguakitza 12:** 98.052 (129 seriea)
**Astelehena 15:** 38.849
**Martitzena 16:** 61.551
**Eguaztena 17:** 83.719

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*

Bihar, zapatua, lainotsu eta euri piska bat. Elurra 400 metrotik gorako lekuetan. Tenperaturak behera. Iparraldeko indar gutxiko haizea.
Domekan, lainotsu eta euria. Tenperatura eta haizea antzera. Elurra 400 metrotik gora.

## Ilargiaren aldiak

Ilgora: azaroak 16
Ilbete: azaroak 23
Ilbehera: azaroak 29
Ilberri: abenduak 7

## Eguzkia

*Domeka, azaroak 21*

Sortu: 08:10

Gorde: 17:55

## Tenperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

| | max. ºC | min. ºC | euria l/m² |
|---|---|---|---|
| **Eguena 11** | 10 | 4 | - |
| **Eguakitza 12** | 9 | 3 | *6,1* |
| **Zapatua 13** | 9 | 7 | *11,4* |
| **Domeka 14** | 9 | 7 | *28,7* |
| **Astelehena 15** | 8 | 7 | *1,9* |
| **Martitzena 16** | 9 | 5 | *10,4* |
| **Eguaztena 17** | 11 | 6 | *27,1* |

# bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Aundinai**

1. Harrokeria.
*- Diru asko eztau izango baiña aundinaixa...*

2. Haundinahikoa.
*- Auraxe da persona aundinaixa.*


JOSU OKINA

## Farmaziak

**Eguakitza 19:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*
**Zapatua 20:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*
**Domeka 21:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*
**Astelehena 22:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*
**Martitzena 23:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*
**Eguaztena 24:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*
**Eguena 25:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

## Ogia

**Domeka 21:** Mizpildi.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 112 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitala | 943 03 53 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 77 91 00 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Jubilatuen Etxea | 943 76 21 40 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |


**Julen Eguren**
Azaroaren 23an
7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.


**Miren Elizburu**
Azaroaren 19an
15 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.


**Luis Lenisoro**
Azaroaren 24an
41 urte.
Urte askotarako!
Hodei eta Aitzol.


**Jon Azpiri**
Azaroaren 23an
20 urte. Urte askotarako! Hodei, Aitzol, Olaia eta Aitor.


**Ana**
Azaroaren 22an
34 urte.
Urte askotarako!
Auskalo nor.


**Iñaki Aranzabal**
Azaroaren 21ean
17 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.

# zorion agurrak



**Maitane Juaristi**
Azaroaren 20an
2 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta lagunak.



**Jon Perez**
Azaroaren 22an
3 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta familia.



**Olatz Zabaleta**
Azaroaren 21ean
5 urte.
Urte askotarako! Familiakoak.



**Iraia Beitia**
22an 10 urte. Urte askotarako eta halakoxe jator jarraitu! Etxekoak eta Aritz.



**Urko Sanchez**
Azaroaren 20an
7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Juanma**
21ean urtebetetzea.
Urte askotarako eta muxu handi bat!
Leire eta Unai.



**Nerea Urresti**
Azaroaren 25ean
5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Julen.



**Remi Aranzabal**
Azaroaren 21ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Ainhoa De Marcos**
Azaroaren 20an
5 urte.
Urte askotarako!



**Endika Mata**
Azaroaren 21ean
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Mikel Aranzabal**
Azaroaren 21ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Julen Muruamendiaraz**
24an 6 urte. Urte askotarako! Aita, ama eta Maitane.



**Sara Mancho**
Azaroaren 20an
2 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta lagunak.



**Oihane Arazkonaga**
22an 6. Urte askotarako! Etxekoak, Ander eta Nerea.



**Maria Gurrutxaga**
Azaroaren 19an
90 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta batez ere Egoitz.



**Nerea Goenaga**
Azaroaren 22an
11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Mary Martin**
25ean urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak, Ander, Oihane eta Nerea.



**Olatz Etxeberria**
Azaroaren 22an
8 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta lagunak.



**Paco Molina**
Azaroaren 22an
64 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta batez ere Markel.



**Andoni Goiti**
Azaroaren 22an
27 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Roberto Urkia**
Azaroaren 20an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Amaia eta Jon.



**Mertxe Larrañaga**
Azaroaren 25ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



**Asier Taboada**
Azaroaren 22an
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

*Datorren asteko alean,*
***AZAROAREN 26**a eta **ABENDUAREN 2**a*
*bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.*

*URTEURRENA*

## Marian Conde Borrajo



Bigarren urteurreneko meza
zapatuan, azaroak 20,
arratsaldeko 19:00etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,*
*aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

*URTEURRENA*

## Asuntxi Garcia Alonso



Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroak 21,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,*
*aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

*URTEURRENA*

## Zirilo De Pedro Allende



Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroak 21,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,*
*aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## jaiotakoak

**BERGARA**

**Mikel Najera Narbaiza**
Azaroak 10

**Imanol Etxaniz Arizmendiarrieta**
Azaroak 11

## hildakoak

**BERGARA**

**Basilio Fernandez Lopez**
Azaroak 14, 82 urte

**Felisa Iturrino Intxausti**
Azaroak 14, 80 urte

**Enrike Martin Sanchez**
Azaroak 15, 79 urte

**ANTZUOLA**

**Maria Guridi Iturbe**
Azaroak 12, 66 urte

# ANTZERKIA

▶ **Euskal Antzerki Topaketak** Azpeitin; bihar, zapatua, Maskarada taldearen **"Izarretako bitakora"**, 21:30etan Zelaitxo antzokian.

▶ **Mugak Salta zirkoa** bihar, zapatua, 17:00etan Eibarko Ipurua Kiroldegian, **Txoronpio, Pantxi eta Pantxo** pailazoen eskutik.

# MUSIKA

▶ **Santa Zeziliako kalejira**, Udal Txistulari Banda eta Musika Bandarekin, domekan 11:30etan. Jarraian, 12:30etan, Bandaren kontzertua Frontoian.

▶ **Arriolako Jazz Blues Jaialdia** Elorrion: gaur, eguakitza, **Chano Dominguez eta Iñaki Salvador Duo** 22:30etan; zapatuan, **Inlavables** taldea, 23:00etan Ateneoan eta eguenean, hilak 25, **Gabis Powell Blues Experience**, 22:30etan Ateneoan.

▶ **Erramun Martikorenaren kantaldia** domekan Eibarko Portalea aretoan, 19:00etan.

KONTZERTUA

## *Rosendo*

**Non:** Jam aretoan
**Noiz:** bihar, zapatua, azaroak 20, 23:30etan
**Sarrera:** 1.700 pezeta aurrez; 2.000 takilan.

Rosendo rockero ezagunak kontzertua eskainiko du bihar gauean Jam aretoan. Aurten bere abestirik ezagunenak biltzen dituen "Siempre hay una historia... en directo" diska (zuzeneko bere bigarren lana) kaleratu du madrildarrak, eta 1980ko hamarkadan ezagutzera eman zenetik kritikak zein publikoak harrera beroa eskaini izan diote. 1985etik hona, Carabancheleko kantari eta kitarrajoleak dozena bat disko kaleratu ditu eta guztietan estilo bati guztiz leiala izan da. Estudioetako grabazioetan baino, Rosendoren indarrak zuzeneko emanaldietan du oinarria eta, beraz, bere jarraitzaileek ezinbesteko zita izango dute bihar Amilagako aretoan.

Leño taldean aritu ondoren, Rosendok bere bakarkako ibilbideari ekin zion eta gaur egun Estatuko heavy eta rockeroen artean erreferente nagusienetako bat bilakatu da. Honez gero, omenaldi diskoren bat ere eskaini izan diote hainbat artistek, madrildarrak Estatuko musika panoraman egin duen lana errekonozituz. Bakarlari gisa aritu arren, Rosendok nahiago du bere burua talde baten partaide sentitzea eta, hori dela eta, behin baino gehiagotan adierazi du "Rosendoak gara", bere taldeari buruz galdetu izan diotenean. Azken urteotan komunikabideek eta musika kritikariek arreta berezia eskaini izan diote eta horren ondorioz salmenten zerrendetan aurreneko postuetara iritsi da. Bihar azken abestiak eta bere ibilbide luzeko kanturik ezagunenak joko ditu, tartean "Loco por incordiar", "Agradecido", "Deja que les diga que no" eta beste hainbat.


Rosendo zuzenean ikusteko aukera izango da bihar Jam aretoan.

# ERAKUSKETAK

▶ **Iker Badiesen akuarelak** Kultur Etxean, domekara arte.

▶ **Juan Antonio Unzurrunzagaren** "Oliver Twist"eko argazkiak astelehenetik aurrera Pol-Polen.

▶ **Karegintzari buruzko erakusketa** hilaren 22tik 28ra Kultur Etxean.

▶ **Ion Suinagaren argazkiak** Nahikari tabernan.

# DEIAK

▶ **Liburu azoka** San Martin plazan azaroaren 28ra arte.

▶ **Mahai-ingurua**: "Proyeccion y fututo de la antigua linea del Ferrocarril Vasco Navarro". Eguaztenean, hilak 24, 19:30etan UNEDeko aretoan. Jarraian, **"El maquinista de la general"** filmea.

▶ **Karegintzaren inguruko mahai-ingurua** hilaren 26an, 19:30etan Kultur Etxean, **Joxe Sagastibeltza** (Aranzadi







Elkartekoa), **Nekane Urdangarin** ("Karobiak Ataunen" liburuaren egilea) eta karegintzan jardundako **Andres Urzelai eta Bernabe Guridiren** partaidetzarekin. Hilaren 28an Kapirixok antolatutako **ibilaldia** izango da Gatzagara, 9:30etan Beheko Estaziotik, karobiak eta gatz fabrika ikusteko.

▶ **Odol ateraldia** eguaztenean, hilak 24, 18:30etan.

# OHARRAK

▶ **Gazteen informazioarako bulegoa** eguenetan eta eguakitzetan 16:00etatik 20:00etara eta zapatu goizetan 9:30etatik 13:30etara zabalik dago Kultur Etxean.

▶ **Batzoki eguna** azaroaren 28an. Eguerdiko 12:30etan Monja Zaharretan meza izango daeta 14:30etan bazkaria Batzokian. Izen-ematea hilaren 25era arte zabalik.

▶ **Alargunen elkarteko** kideen urteroko bazkaria izango da abenduaren 8an Antxoni jatetxean. Interesatuek elkartean bertan eman dezakete izena.

# JAIAK

▶ **Arimen eguna Osintxun** astelehenean; 19:00etan gaztainak eta sagardoa banatuko dira eta 21:00etan afaria izango da.

# KINTADAK

▶ **1946an jaiotakoen afaria** azaroaren 27an Tartufo jatetxean. Joan-etorria egiteko autobusa izango da. Izen ematea: 943 76 35 51 (Begoña).

▶ **1943an jaiotakoen afaria** azaroaren 27an Antxonin, 21:00etan. Izen ematea: Maher (943 76 22 90) edo Tejidos Fernandez (943 76 53 22).

▶ **1980an jaiotakoen bazkaria** azaroaren 27an Zabalan. Izen-ematea hilaren 20ra arte Zabalan (1.000 pezetako aurrerapena).

▶ **1944an jaiotakoen afaria** azaroaren 27an Azpeitxi jatetxean. Aurretik, 19:00etan, meza izango da Santa Marinan. Izen-ematea 93 76 23 70 (Sanchez ileapaindegia) edo 943 76 42 42 (Jesus Aperribai) telefonoetan.

▶ **1957an jaiotakoen afaria** azaroaren 27an Torrekua erretegian, 21:30etan. Izen-ematea (1.000 pezetako aurrerapena) Intxorta tabernan.

▶ **1927an jaiotakoen eguna** azaroaren 28an. Santa Marinan meza13:00etan eta 14:30etan Antxonin bazkaria. Izen-ematea Antxonin.

▶ **1936an jaiotakoen bazkaria** abenduaren 11n Antxonin, 14:00etan. Izen-ematea Antxonin edo Eusebio II tabernan.

# Z I N E A

## KARTELDEGIA

**BERGARA. Novedades**
**Una terapia peligrosa**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.
**Mumford**
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ARRASATE. Alai zinema**
**El club de la lucha**
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:30.

**ARRASATE. Amaia**
**Beldurrezko zine maratoia**
Domeka: 17:00.
**Hombres armados**
Eguena, zine-kluba: 21:30.

**EIBAR. Unzaga**
**Proyecto de la bruja de Blair**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**
**Novia a la fuga**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**OÑATI. Santana**
**Una terapia peligrosa**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:30.
**La cena de los idiotas**
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ELORRIO. Arriola**
**La guarida**
Zapatua: 20:00.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.
**On connait la chanson**
Eguena, zine-kluba: 20:15.

**UNA TERAPIA PELIGROSA**
**Zuzendaria:** Harold Ramis.
**Aktoreak:** Robert De Niro, Billy Cristal, Lisa Kudrow.
≥ 13 URTE
*Paul Vitti* (Robert De Niro) New Yorkeko gangsterrik boteretsuenetako bat da baina mafiosoen gidaritza hartzea tokatzen zaionean arnasketarekin arazoak izango ditu. Ezin du lorik egin, familiarekin kezkatuta dago eta bere ingurukoak arritu egiten dira bere erreakzioekin. Hori dela eta, *Ben Sobel* (Billy Crsital) psikiatraren kontsultara joatea erabakiko du...

**MUMFORD**
**Zuzendaria:** Lawrence Kasdan.
**Aktoreak:** Loren Dean, Hope Davis, Jason Lee. ≥ 13 URTE
Aurtengo Donostiako Zinemaldiko sail ofizialean aurkeztu zen Lawrence Kasdan zuzendari ospetsuaren azken filmea (*El turista accidental, Gran Canyon*). Oraingo honetan *Mumford* (Loren Dean) izeneko psikologo baten gorabeherak kontatzen dizkigu. Kiritikak harrera ona eskaini dio filmeari estreinatu zenetik.




BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

**Jose M. Martin**
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

**LONBIDE**
**OINETAKOAK**
Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57



**REMENTERIA**
**Altzariak**
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

## MANOLI URRA
### Mariaren Lagundiako historialaria

# "200. urteurrena ospatzeak gure aurrekoen indarra erakusten du"

**Bergarako Mariaren Lagundia Ikastetxearen 200. urteurrena dela eta, "Bergarako Mariaren Lagundia. Bi mendetako historia" liburua aurkeztu zuen joan zen asteazkenean Manoli Urra bertako moja eta historialariak.**

**G.** Noiz hasi zinen liburu honen prestaketa lanetan, eta nola burutu duzu?

**E.** Historiako karrera egin nuen Deustun, eta bukatzerakoan derrigorrez aurkeztu behar genuen tesina. Tesina zuzendu behar zidan irakasleak, Bergarako historia aztertzera animatu ninduen, artxibategietan informazio asko dagoela eta. Ikerketa lanetan hasi nintzen, eta azkenean, Mariaren Lagundiari buruzko tesina prestatu nuen. Nik esango nuke hor aurkitzen dela liburu honen abiapuntua. Eta hortik aurrera ikerketa asko egin izan ditut, gero liburuaren prestaketan erabili ditudanak.

**G.** XIX. mendetik hona arazo ugariri aurre egin behar izan dio konpainiak. Hala ere, bigarren mendeurrena ospatzen ari zarete...

**E.** Bai, horrek izugarrizko poza ematen digu. Gainera, gure aurrekoek izugarrizko indarra izan zutela suposatzen du, eta orain ere badaukagula indarrik. Horregatik ari gara urteurren hau ospatzen, ospatzeko modukoa delako.

Kontuan hartu behar da desamortizazioa jasan zuela konpainiak, Errepublika garaian erlijio irakaskuntza ezabatu zela, Gerra Zibilean kuartel bezala erabili zela, arazo ekonomiko handiak izan zituzten... Guzti hori pasatu eta gaur bigarren mendeurrena ospatzeko moduan izatea gauza handia da guretzat.



Mariaren Lagundiako historiari buruzko liburua argitaratu du Manoli Urrak.

**G.** Badirudi Mariaren Lagundia Ikastetxearen filosofia izan dela beti momentuan momentuko erronkei aurre egitea, ez al da hala?

**E.** Beti izan da hori gure filosofia, bai. Eta horixe da gainera, liburu honetan ateratzen dudan ondoriorik garrantzitsuena. Alde batetik, Mariaren Lagundiako mojen helburua beti izan da doaneko hezkuntza eskaintzea, bazterketa soziala ekidin asmoz, neskatxa guztiek izan zezaten aukera berdina; bestetik, baterako hezkuntza onartu bezain laster izan da ikastetxe hau mistoa. Hala ere,aipatzekoa da lehenago ere onartu zirela mutilak, nahiz eta ez zuten neskekin batera ikasten. Eta azkenik, oso garrantzitsua izan da euskararen aldeko gure erronka, gaur egun ikastetxea ikastola dela kontuan hartzen baldin badugu.

***"Mariaren Lagundiako mojen eta ikastetxearen filosofia, momentuko beharrei aurre egitea izan da beti"***

**G.** Zela aldatu da zure ustez ikastetxea orain dela 30-40 urtetik hona? Nola ikusten duzu aldaketa hori?

**E.** Nik uste dut garai horixe izan dela, 70. hamarkada hain zuzen ere, Mariaren Lagundiaren historian zehar, ikastetxeak aldaketa handienak jasan dituen garaia. Demokraziaren hasierarekin batera, mugimendu handia zegoen herrian, eta ikastetxea buru-belarri sartu zen horretan. Bestetik, oso garrantzitsua iruditzen zait, lehen esan dudan bezala, ikastetxeak euskararekiko hartu zuen jarrera, ikastetxe izatetik ikastola izatera pasatuz. Heziketa mistoa bilakatzeak ere ikastetxea asko aldatu duela iruditzen zait.

**G.** Erlijioarekiko interesa gutxitzen doala esaten den honetan, nola ikusten duzu Mariaren Lagundia bezalako ikastetxe baten etorkizuna?

**E.** Egia da, bai, erlijioarekiko interesa nabarmen murriztu dela. Hala ere, guk ez dugu horregatik ikasleen gutxitzerik igartzen. Ez dakidana da, gurasoek zergatik bidaltzen dituzten beraien haurrak ikastetxe honetara, heziketa erlijiosoa jaso dezatela nahi dutelako edo beste arrazoiren batengatik. Niri iruditzen zait hezkuntza on eta serioa eskaintzen dugun bitartean, izango dugula nahiko ikasle.

# UNEDeko ikasturtearen hasiera-ekitaldia izango da gaur Udaletxean

## Bergarako zentruan 1.500 ikasle inguruk jardungo dute

**Gaur, arratsaldeko 7etatik aurrera, Bergarako UNED ikastetxeko 1999-2000 ikasturtearen hasierako ekitaldi akademikoa egingo da Udaletxeko Pleno aretoan.**



Jose Maria Urkia irakasleak emango du hasiera hitzaldia. DV

Inaugurazio saioan, Jose Maria Urkia Euskalherriaren Adiskideen Elkartearen Gipuzkoako Batzordeko presidenteak "Bergarako Errege Mintegiaren gako historikoak: Espainiako lehen politeknikoa" izenburuko hitzaldia emango du. Juan Jose Alvarez zuzendariaren hitzetan, "medikua eta irakaslea izanik, aproposa iruditu zitzaigun Urkiak hasierako hitzaldia ematea, XVIII. mendetik Bergaran Adiskideen Elkarteak edota Elhuyar anaiek egindako lana ondo baino hobeto ezagutzen baitu". Zuzendariaren agurraren ondoren, lizentziatura ikasketak burutu dituzten ikasleei diplomak banatuko zaizkie. Roman Sudupe Diputatu Nagusiak eta Jaime Montalvo UNEDeko erretore jaunak ere hitza hartuko dute eta, horrez gain, Wonder Brass Quintet taldearen eta Umore Ona abesbatzaren emanaldia izango da.

### 16 LIZENTZIATURA

Juan Jose Alvarezek hiru urte daramatza Bergarako UNEDeko zuzendaritzan. Bere hitzetan, "balantzea positiboa da, ikasleen kopuruak gora egin duelako eta zentrua akademikoki ere egonkortu egin delako". Aurtengo ikasturteko klaseak urriaren 18an hasi ziren eta eskainitako 16 lizentziaturatan eta 25 urtetik gorakoentzako unibertsitaterako sarrera kurtsoan, 1.400 ikasle inguru matrikulatu dira. Horrez gain, psikomotrizitatea, praktika juridikoa edota enpresa barruko giza harremanen kurtsoak eskaintzen dira aurten.

Bestalde, 2001. urtean Bergarako UNED ikastetxeak bere sorreraren 25. urteurrena beteko du eta ordurako hainbat berrikuntza egin nahi dira. Alvarezen arabera, "fatxada eta teilatua berrizteko negoziazioetan ari gara Estatuarekin eta ordurako edifizio monumental hau baldintza onenetan izatea gustatuko litzaiguke. Horrez gain, datorren urteko maiatzerako zentruan liburutegi bat jarri nahi dugu eta gelak eta bulegoak berriztu nahi ditugu". Aurtengo ikasturtean hainbat klase bideo konferentzia bitartez jasotzeko aukera izango da eta UNEDek web orria ere zabaldu zuen otsailean (http://info.uned.es/ca-bergara). Ordutik, UNEDko iturrien arabera, 2.500 kontsulta inguru egin dira aipatutako web orrian.

**BERGARAKO UNEDeko MATRIKULAK**

| KARRERA/KURTSOAK | IKASLE KOP. |
|---|---|
| • 25 urtetik gorakoentzako unibertsitaterako sarrera | 115 |
| • Zuzenbidea | 253 |
| • Geografia eta historia | 140 |
| • Hispaniar filolojia | 44 |
| • Ekonomi zientziak (plan zaharra) | 19 |
| • Ekonomia (plan berria) | 39 |
| • Enpresa zientziak (plan zaharra) | 43 |
| • Enpresa zuzendaritza eta administrazioa (plan berria) | 102 |
| • Fisika | 21 |
| • Matematika | 22 |
| • Kimika | 12 |
| • Injinerutza industriala | 34 |
| • Informatika sistemen injinerutza teknikoa | 72 |
| • Jestio informatikoaren injinerutza teknikoa | 57 |
| • Politika zientziak | 45 |
| • Soziologia | 65 |
| • Psikologia | 219 |
| • Hezkuntza zientziak (pedagogia) | 44 |
| • Filosofia | 39 |
| • Doktoradutza ikastaroak | – |
| **GUZTIRA** | **1.383** |

Ortzadar
Kortsetegia, mihisedenda, pijamak eta osagarriak
Bisita gaitzazue eta Ionek gustoz zerbitzatuko zaituzte!
Zuen zerbitzura!
Ibargarai 8. 943 76 54 73. LEHEN *YAZKI GAZTE* ZEGOEN TOKIAN!

# Behin-behineko geltokia lehengo Eguren tailerrean

## Martxan jartzean Beheko Estazioa bota egingo dute



Eguren tailerrean behin-behineko geltokia jarri ahal izateko lanetan ari dira egunotan.

**Azkenean**, autobus geltokia, probisionalki, lehengo Eguren tailerrean, oraingo geltokiaren parean hain zuzen ere, kokatuko da. Datozen egunetan Eguren tailerra eta ondoko etxea bertan behera botako dira eta autobus geltokia bertan kokatzeko markesina jarriko da. Udal iturrien arabera, autobus geltoki probisionala jarri bezain laister, azken asteotan zeresan ugari eman duen Beheko Estazioko eraikuntza bota egingo da.

Gregorio Egurenek 1921. urtean martxan jarri zuen Eguren tailerra makineriaren erreparazioa eta errektifikazioa egiteko. Bertan bildutako materiala Udal Biltegian gorde da, etorkizunean Kiroldegi ondoko biltegian jarriko den industria museoan erakusteko asmoz. Xabier Aranburu udal museologoaren hitzetan, "garai bateko industrializazio motaren adibide bikaina da Eguren tailerra eta makinak mugiarazteko erabiltzen zen transmisio sistema (korrea eta barra bitartez) oso-osorik dago oraindik ere. Horrelako gutxi daude Euskal Herrian. Udalak bertako makinak eta trasmisio sistema erosi zituen, ondare industriala kontserbatzeko nahian".

### GELTOKI BERRIA

Bestalde, hasiera batean autobus geltoki berria Torrekua aurrean jartzeko asmoa zegoen. Hala ere, azpitik Urkulutik datorren tuberia handi bat pasatzen denez, geltokia bertan jartzeko proiektua baztertu egin da oraingoz eta Udala beste kokaleku posible batzuk aztertzen ari da. Geltoki berria hurrengo urtean egiteko asmoa dago.

### Protesta ekitaldiak

**Ikastetxe** ertainetako ikasle talde batek manifestazioa egin zuen eguaztenean, Nazioarteko Ikasleen Egunean, Ikasle Abertzaleak-ek deituta. Euskal presoen aldeko mobilizazioak ere izan dira egunotan.

### Mariaren Lagundia

**Bihar**, Mariaren Lagundiko 200. urteurreneko ospakizunekin amaitzeko, ikasle eta irakasle ohien topaketa eguna izango da.

### EHEren konzentrazioa

**EHE taldeak** deituta, "Justizia española Euskal Herritik ezabatu" lemapean, zapatuan 12:00etan konzentrazioa egingo da epaitegian.

### Ibilaldi solidarioa

**Bihar**, zapatua, kontzentrazioa egingo da 18:00etan San Martin plazan, soldata soziala gutxiengo soldatara parekatzeko aldarrikatzeko. ELA, LAB, ESK, STEE EILAS eta CCOO sindikatuek egin dute deia.

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

*"Erratzu"*

San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA

**AZPEITXI**

*Jatetxea*

Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

# Amodiozko gutunen VIII. lehiaketa deitu du Jardunek

**Jardunek Amodiozko Gutunen Lehiaketaren VIII. edizioa deitu du. Lehen ediziotik lehiaketak izen propioa izatea lortu du eta literaturzale erromantikoen ezinbesteko zita bilakatu da.**

Lehiaketan 1985ean edo lehenago jaiotako edozeinek parte hartu ahal izango du. Lan guztiak euskaraz idatziak izan beharko dira eta lanen luzera ez da bi orrialde baino gehiagokoa izango. Lanek gutun forma izan beharko dute eta DIN A-4 orritan lanak eskuz zein makinaz aurkeztu ahal izango dira. Eskutitzak entregatzeko azken eguna urtarrilaren 10a izango da. Lanean ez da egilearen daturik jarriko, lema bat baizik. Egilearen datuak biltzen dituen sobre txikian lema bera azaldu beharko da.



Xabier Larrañagak bigarren aldiz irabazi zuen iaz lehiaketa.

**LAU SARI**

Sariei dagokienez, irabazleak 75.000 pezeta jasoko ditu eta bigarren saria 40.000 pezetakoa izango da. Bergarar onenarentzako saria 25.000 pezetakoa izango da. Lehen edo bigarren saria Bergarako norbaitek lortzekotan, bergarar onenarena herriko bigarren onenari emango litzaioke. Bestalde, irakurle gazteek emandako saria ere banatuko da. Irabazleak Xabier Diaz de Zerioren eskultura bat jasoko du. Ohizkoa denez, sari banaketa otsailaren 14an, San Balentin egunean egingo da, Kartzela Zaharrean.

Epaile lanetan Jasone Osoro idazle eta kazetaria, Mikel Urdangarin kantaria, Unai Iturriaga bertsolaria eta Xabier Larrañaga iazko irabazlea izango dira. Larrañaga lehiaketa bi aldiz irabaztea lortu duen bakarra da. Joan zen urtean Euskal Herri osotik bidalitako 209 lan aurkeztu ziren.



# Berrigara

388 zenbakia.
1999ko azaroaren 19a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 943 76 03 97**
**Faxa: 943 76 29 77**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.
**Erredakzioa:** Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Tere Madinabeitia, Aintzane Irizar.
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.
**Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien, Maripi Laskurain.
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza.
**Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** **Gipuzkoako Foru Aldundia** **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**

## gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### ZAPATUKO IKUSKIZUNA

Joan zen zapatuko eguraldia zela medio, ezin izan zen ospatu Berotzi ileapaintzaileak eta Mayak Kafe tabernaren terrazan antolatuko ikuskizuna.

Hori dela eta, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu ikuskizun honen antolaketan borondate onez eta euren esfortzu eta denbora dedikatuz parte hartu duten guztiei, eta bertara joan eta azken momentura arte zain egon zirenei.

Eta besterik gabe, behar den aurrerapenez abisatuko den hurrengo aldirako gure gonbita luzatzen dizuegu. Eskerrik asko.

*Berotzi ileapaintzaileak eta Maya*

### EUSKAL PRESOAK KALERA

Euskal preso politikoen egoera ikusirik eta presoek beraiek hartu duten jokaerari erreparatuz, herri honek ere irtenbide bat bilatu behar du trantze larri hau konpontzeko.

Egoera honen aurrean, Bergaran presoen alde lan egiten dugun lau taldeok presoen borrokarekin bat egin, gure elkartasuna adierazi eta bide batez arazoaz herria kontzienzia dadin, azaroaren 27rako konpromezu eguna antolatu dugu. Ekitaldi batzuek aurrera eramango ditugu; besteak beste enkartelada iraunkorra herriko plazan.

Enkartelada hau goizeko 11:00etan hasiko da, eta gaueko 24:00ak arte iraungo du. Gure helburua, herriko talde ezberdinek enkartelada hauetan parte hartzea da, ordutik ordura taldeak txandakatuz: kuadrilak, euskararen munduarekin lotuta daudenak, partidu politikoak, sindikatuak, langileak, dendariak, tabernariak, irakaskuntza, kirolariak, gazte taldeak, etabar.

Aste honetan hasiko gara talde hauen ordezkariekin harremanetan jartzen. Hala eta guztiz ere, ezinezkoa denez herritar guztiengana iristea, gu taldeen izenak eta egokitu zaien ordua lehenbailehen kaleratzen saiatuko gara; eta eskatzen dizuegu adi egotea eta bakoitzak ikusiko du zein taldetan kokaturik ikusten duen bere burua.

Herritar guztiok parte hartzera animatzen zaituztegu: ate guztiak irekita daude eta egunean zehar plaza beteta egotea pozgarria bezain garrantzitsua da.

Hau izango da ekitaldi nagusiena, baina honetaz gain, gehiago ere izango dira. Izango duzue hauen berri eta ahal duzuen neurrian parte hartzea eskatzen dizuegu.

Presoen egoera lehenbailehen konpon dadin, eta gure artean egon behar dutelako aurrez eskerrak emanez.

*Amnistiaren Aldeko Batzordea, Euskal Presoak Euskal Herrira, Senideak eta Bergarara Plataforma*

## tira biraka: **alex ugalde**






**atrebentzia ezpada**

## Aurten izan ei da soldauzkarako azkenengo zozketia. Zer pentsatzen dozu ejerzito profesionalaren gaiñian?



**Rodrigo Piñeiro**

Egixa izan daila azkena dala. Nahi dabenak bakarrik jun biharko leuke eta kobrauta.



**Modesto Merino**

Ondo, hola ez litzake etenaldirik izango gaztiaren bizitzan, ikasten edo lanian badihardu erditik apurtzen jaolako dana.



**Antonio Martin**

Ondo, profesionala izan biharko leuke ejertzituak, boluntarixua eta ez derrigorrezkua.



**Markel Azpiroz**

Neri ondo etorriko jaten, holan ez neukielako eingo. Askoz be hobeto hola.



**Karol Arribas**

Ondo dago profesionala izatia. Hurrengo urtekuan artian be intsumiso asko atera bihar ziran eta nahi dabenak bakarrik jun.



**Maria Riera**

Ia ba azkena dan, baiña gobernua aldatzen bada, auskalo. Libria izan beharko leuke soldadutzara jutia.

**bai, esan!**

*Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.*

### ERREZETAK EGITEKO TXANDAK

**M. Martinez**en deia jaso genuen aurreko eguakitzean, hilaren 12an. M. Martinezek esan zigunez, anbulategira deitu zuen bezperan, hilaren 11n, errezetak egiteko txanda eskatzeko eta hilaren 25erako eman zioten txanda anbulategian. M. Martinez oso haserre zegoen ez zaiolako bidezkoa iruditzen anbulategian horrenbesteko atzerapenarekin funtzionatzea. Bestalde, askotan joaten ei da M. Martinez anbulategira eta berak esan digunez, inoiz ez diote agindutako orduan atendidu. Lerro hauen bitartez, M. Martinezek anbulategiko arduradunei puntualitate gehiago eskatu nahi lieke.

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78



MUJIKA FERRETERIA
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



Ur~bide
ITURGINTZA
Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

adituen esanetan

# Memoria lantzen



RAKEL BARCENILLA

*Psikologoa*

San Joxepe elkartean antolatutako memoria tailerrean oroimenaren hiru mailak landuko ditugu: alde batetik berehalako oroimena (telefono zenbaki bat ematen digutenean nonbaiten apuntatu beharra dugun kasuetarako); bestetik gertatu berri diren gauzak (zer egin nuen domekan?); eta, azkenik, antzinako oroimena deritzona, gazte denborako kontuak gogoratzen ditugunean adibidez. Adinean aurrera goazela, berehalako oroimena eta gertatu berriarena dira gehien galtzen direnak. Antzinako oroimena, berriz, ia ez da galtzen eta horregatik zahar askok zenbaitetan ez dute goizean egin dutena gogoratzen eta, aldiz, xehetasun guztiekin ekartzen dituzte gogora gerrako edo gaztetako kantu eta kontuak.

*"Berehalako oroimena eta gertatu berriarena dira adinarekin gehien galtzen direnak. Antzinako oroimena ez da ia galtzen"*

Bestelako giharreekin egiten den antzera, buruko gimnasia egitea ere komenigarria izaten da. Esate baterako, 10 segundutan, zortzi zenbaki aurrean izan eta gero frogatu ea horietako zenbat gogoratzeko gauza garen. Eta beste pertzepzio mota bati zuzenduta dauden buruhausgarriak eta horrelako ariketak ere egingo ditugu oroimena lantzeko.

Oroimenak hiru gauza eskatzen ditu: errejistratzea, gogoan gordetzea eta gogoratzea; eta horretarako arreta, konzentrazioa edota motibazioa ezinbestekoak dira. Dena den, memoria galduz doa denborarekin, baina hori normala da, kirola egiteko sasoia ere ez delako bera izaten. Zentzuen ahalmena galtzen dugun neurrian, ezinezkoa zaigu eskaintzen diguten informazio guztia jasotzea. Batzuk beste batzuk baino azkarrago hasiko dira gauzak ahazten, baina kasu gehienetan zahartzaroko ahazte onbera kasuak izaten dira.

Jende asko beldur da ahazte horiek alzheimer gaisotasuna ekarriko duten atzetik baina, esan bezala, ahazte onbera eta patologikoa (alzheimerra) ez dira gauza bera.<



Oroimena lantzeko burua aktibo mantendu behar da.

bergarako gordailutik

## IZAGIRRETAR FERNAN MARTINEZ

**Imanol Sorondo**

Izagirretar Fernan Martinez alkatea zen 1504 eta 1505 urteetan, eta nahiko lan egin zituen bere dirutik, bere poltsikotik, zionez Bergararen onerako eta ondorengoen jarraibiderako. Hemen ipiniko dira gaur irakurri daitezkeenak.

Agirre iturria sortu zuen, eta bere ondoan zegoen etxea oinarrietatik altxa, iturriari kerizpea emateko; era berean, hiru intxaur landatu zituen ondoan eta, lehenagotik, han eta hemen zebiltzan urak bildu. San Pedro elizaren alboan harriz eta adobez pilarea egin zuen; gero, erdiko enparantzan zeuden uren erdiak lurpetik ekarri zituen bertara eta beheko kalera eraman, hori ere lurpetik eta tutuen bidez. Gainera, Erregeen harmarriak egin zituen eta azpian Bergarakoak landu, eta Udaletxekoak elkartzen ziren Ospitaleko gelan ipini zituen.

San Migel ermitara doan bidearen azken aldapatxoaren aurretik gereziak landatu zituen, bertako serorentzako eta Bergaratik erromeriara joaten zirenentzako, baina ez handik hartu eta kanpora eramateko. Beste 15 gaztain ere landatu zituen San Migelen serorentzako.

Gainera, dendak egin zituen Larrea ondoan, bertan arrainak, ogia, fruituak, eta beste janari batzuk saltzeko; gero, 6 haritz landatu zituen Errotalden meza berriak eman eta kantatzen ziren intxaur inguruan, jendea hobeto egon zedin kerizpean. Beste 12 gaztain ere landatu zituen Urietatik San Prudentziora zihoan bidean, Ermitaren onerako.

*"San Migel ermitara doan bidearen azken aldapatxoaren aurretik gereziak landatu zituen, bertako serorentzako eta Bergaratik erromeriara joaten zirenentzako"*



# Agur bizikletari

**Bergarako Txirrindulari Elkarteak Dorletara** egin zuen aurtengo denboraldiko azken irteera. Bertan, txirrindulariek ohi duten bezala, **lore sorta bat eskaini** zioten amabirjinari. Negua bertan dela eta, datorren udaberria arte, beraz, alde batera utzi dute txirrindua ziklistek, eta bihar, zapatua, afari batekin esango diote agur aurtengo denboraldiari.

# *Gaztainerre jana Mizpirualden*

*Kanpoan euri zaparrada izugarria zibarduen bitartean, **eguaztenean** arratsaldeko 16:30etan **gaztainerre jana** izan zuten Mizpirualde egoitzan bertako bizilagunek. 18:30etan, berriz, **Musika Eskolako trikitilariek** alaitu zuten arratsaldea.*



# Argazkilariak rallyan



Urtero bezala, **argazki rallya** izan zen urriaren 24an **Pol-Pol** argazki taldeak antolatuta. **35 partaide** aritu ziren lehian, **12 bergarar** tartean. Goizeko 8:30etatik 14:00ak arteko denbora izan zuten argazkilariek sei gairi buruzko argazkiak ateratzeko. **Alen Silva** durangarra izan zen garaile; bigarren saria **Jose Luis Feo** bergararrari eman zioten (ezkerreko argazkia). Bergararren artean, berriz, **Benito Cantero** izan zen irabazlea. Argazkien **proiekzioa eta sari banaketa gaur**, eguakitza, izango da Pol-Pol argazki taldearen lokalean, 20:00etan.

# Zorionak, bikote!

**Eneko Azkarate** BERRIGARAko zuzendaria eta **Marilu Unamuno** joan zen zapatuan ezkondu ziren Labegaraietako elizan. **Xabier Azkoitia** apaizak, BERRIGARAko kolaboratzaileak, ezkondu zituen. Ondoren, Zumarragako Etxeberri jatetxean izan zuten bazkaria beraien lagun eta senitartekoekin. New York aldean ibiliko da honezkero bikotea, eta handik Dominikar Errepublikara joango dira. Zorionak eta muxu handi bat BERRIGARAko eta Jarduneko lankideen partez!



ARGAZKIA: KINU


Garnish
Bitxitegia
San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

ETXAGI
JATETXEA
AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...
Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

SANTOS
IRRATI-TB
TELEFONIA MUGIKORRA • SUKALDEKO ALTZARIAK • ARGIZTAPENA
Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

Afariak ematen ditugu
"Txanbolintxerokua"
BAR LA UNION
Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

# Bergarako
# OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio** (Granjako **animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 608 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behea. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ezkerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

# kontuola...

**KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazetaria:** Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria, 47 zenbakia. 1999ko azaroaren 19a.*

# Goizperren eraikin berriak martxan

## Olaker, heziketa eta ikerketa zentroa, eta biltegi berria inauguratu

**Iazko apirilean egindako batzar orokorrean onartu zuten Goizperko bazkideek biltegi bat eta ikerketa zentro bat eraikitzea. Bi eraikinak gaur bertan inauguratu dituzte. Horrez gain, eta kooperatibaren 40. urteurrena ospatzeko, omenaldia egin diete bazkide fundatzaileei. Guztira 11 lagunek jaso dute plaka oroigarria gaur goizean egin den ekitaldian.**




Bi mila eta bederatziehun metro karratuko biltegia inauguratu du gaur Goizper Kooperatibak. Erabat informatizatutako biltegia da. Horrela, kamioiek pabilioi zaharretik sartuko dute lehengaia eta berrian kargatuko dituzte, Goizperko produktuekin. Produktuen irteera azkartzea ekarriko du antolaketa berri honek eta baita lana erraztea ere.




*Ikerketa zentroan 13 lagun ari dira lanean.*

Baina ez da hori izan gaur inauguratu duten eraikin bakarra. Izan ere, 40. urteurrena ospatzeko antolatu dituzten ekitaldien artean, Olaker heziketa eta ikerketa zentroaren inaugurazio ofiziala ere egin dute eta. Iñaki Aranburuk zuzentzen du prestakuntza, ikerketa eta heziketa zentro berria eta jadanik, urte osoa daramate lanean. Goizperrek egiten dituen transmisio eta plastikozko produktuen hobekuntzak ikertzeko helburuarekin ekin diote proiektu honi. Gaur egun 13 lagun ari dira garai batean Ariher izan zenaren eraikin berriztuan. Guztiak ere lizentziatu berriak. "Bataz besteko adina, 30 urte azpitik dago". Lea-Artibai eta Arrasateko Eskola Profesionalarekin hitzartutako akordioei esker, bi eskola horietan aritutako ikasle bi ari dira Olakerren lanean graduatu ondoko proiektua garatzen.

Mekanizatuen sekzioan ere aldaketak egin ditu Goizper kooperatibak. Batetik, mekanizatu eta torneatzeko kontrol numerikoa duen makina berria ezarri dute. Bestetik, biltegi automatikoa ere ezarri dute gune honetan, geroago ateratzeko, erdi bukatuta laga dituzten produktuak biltzeko.

**IKERKETA LANA**

Iñaki Aranburuk azaldutakoaren arabera, Goizperrek egiten dituen produktuen gainean ikertzea da Olakerren zeregina. "Kostuak murrizteko teknologia berriak ikertzen ditugu. Goizperrek lehendik dituen bulego teknikoek lanean segituko dute, baina transmisioetan batez ere, bezeroaren eskaerara egokitu beharra daukagu, eta hori dela eta, aldaketak

■ ■ ■

Goizper, Matz-Erreka, Tajo eta Urola enpresak dira Olakerreko bazkideak

■ ■ ■




*Omendu dituzten Goizperko hamaika sortzaileak.*

egin behar izaten dira etengabe. Bulego teknikoak lan asko dauka eta ezin du epe luzerako ikerketetan lan egin. Bestalde, nekazaritza arloan produktu serie handiak egiten dira. Bizkarreko 500.000 ihinztagailuak egiten dira urtero. Hori dela eta, lehiakorrak izateko, produktua hobetzen saiatu behar gara etengabe, baita kostuak murrizten ere. Beharrezkoa zen Olaker bezalako zentro bat eskaera horri aurre egiteko. Izan ere, nekazaritza arloan erabiltzen diren produktuen %80 gutxi gorabehera plastikoz egiten dira, eta orain arte produktu horiek diseinatu baino ez dira egin, oso gutxi genekielako plastikoaren transformazioaren gainean". Ikertzen dena irakasteko ikastaroak ere ematen dira Olakerren.

**ENPRESEKIN ELKARLANA**

Oiartzungo Tajo, Legazpiko Urola, Matz-Erreka eta Goizperko langileek dihardute plastikoaren transformaziori buruzko ikastaroetan. "Goizperrek gehiengoa izan arren, beste hiru enpresak Olakerreko bazkideak dira eta, aldi berean Goizperren hornitzaileak. Hasiera batean ez dugu beste enpresa batzuendako ikerketarik egingo, baina bi urte barru Eusko Jaurlaritzaren teknologia sarean sartzeko eskaera egiteko asmoa dugu.

Olaker epe luzera bigarren graduko kooperatiba izango da, hau da, "bazkideak bertako langileak eta beste kooperatiba batzuk izango dira. Teknologia menperatzen dugunean eta Goizperri erakusten diogunean egindako inbertsioak merezi izan duela, beste enpresa batzuekin egingo dugu lan. Baina helburu nagusia Goizper eta bere hornitzaileen inguruko produktuetan sakontzea da, eta baita arlo horietan kooperatiben barruan prestakuntza zerbitzuak ematea ere".

Helburu horrekin dagoeneko 37 ikastaro eskaini dituzte Olakerren. Guztira 322 ordu. Ikastaro horiek, besteak beste Goizperrek berak, Matz-Errekak, Mondragon Unibertsitateak, Gipuzkoako Merkataritza Bazkundeak, Ibermaticak eta Zaragozako Unibertsitateak eskaini dituzte.

**PRODUKTU BERRIAK**

Datorren urtean Goizperrek aterako duen bizkarreko ihinztagailu berria Olakerrekin batera garatutako produktua da. "Nahiko produktu berriztatzailea da, baina garrantzitsuena kostuan lortu dugun merketzea izan da. Diseinu aldaketak eragindako onura bat izan da hori".

**SORTZAILEEI OMENALDIA**

Hamaika laguni omenaldia egin nahi izan dio Goizper Kooperatibak gaurko inaugurazio ekitaldian. Dagoeneko erretiratuak daude hamaika lagun hauek, baina eurak dira orain dela 40 urte kooperatiba hau sortu zutenak. Euretako bakoitzari oroigarri bana oparitu diete.

Honako hauek dira omenduak: Jose Lizarralde, Julian Iparragirre, Gervasio Legorburu, Jesus Agirre, Pako Legorburu, Koldo Madariaga, Eugenio Larrañaga, Patxi Lete, Jose Mari Biteri, Jose Mari Kortabarria eta Goio Arbulu. ■

■ ■ ■

*"Produktuetan sakontzea eta kooperatibetan prestakuntza zerbitzuak ematea da helburua"*

*IÑAKI ARANBURU*

■ ■ ■

**DATU INTERESGARRIAK**

| Fakturazioa | Langileak |
|---|---|
| 4.200 milioi PTA 1998an | 165 Goizperren |
| | 13 Olakerren |

HARIZKI
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA



*Zapatuan zabalduko da egoitza berria.*

# Danok Bat elkartearen inaugurazioa

**Danok Bat elkartea** azaroaren 20an, zapatuan, irekiko da. Abuztuan erosi zuten Danok Bat elkartekoek Kalegoi 5 zenbakiko eraikina. Udalak bi milioi pasatxo PTA.ko dirulaguntza eman die elkarteko 70 bazkideei, egoitza berria egiteko.

Irekiera ekitaldia arratsaldeko 18:00etan izango da. Bazkideentzako luntxa egingo da. Aurretik, ordea, 70 lagun horiek, batzarra izango dute arratsaldeko 17:00etan. Batzar horretan banatuko dira elkarteko giltzak.

# Santa Zeziliako kontzertua

Azaroaren 28an, domekan, Santa Zezilia, musikarien eguna, ospatuko du herriko Abesbatzak. Goizeko 11:30etako meza nagusian parte hartuko du. Erruki, Santus eta Aita Guyrea abestuko dituzte. Patxi Azkaratek zuzentzen duen abesbatzak kalean ere abesrtujio du. Hogeita hmar basty kide arituko dira kalez-kle bazkal ordura arte. Ondoren, bazkaria izango dute.

## GAZTAINERRE JANA DOMEKAN HERRIKO PLAZAN

Garaiak agintzen duelako, gaztainak jateko ordua iritsi da. Urtero legez, domekan, azaroaren 21ean, egingo da gaztainerre jana Antzuolan, 18:00etan izango da, beraz, gaztainerreak eta sagardoa herriko plazan.



**Okerrak zuzendu eta Antzuolako euskeran emon**

**1. Jaikittakuan oiñetakuak ipiñi eta oherakuan kendu.**

1. ....................................

**2. Bihar etorri leiket / leikegu / leikezu.**

2. ....................................

Izen-abizenak eta telefonua: ....................................

## IDOLAZ ANTZUOLA — bertako hizkeria

*Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:*

*1. Badaukazu kolarik?. / Nahi dozu yogurrik? / Eztaukat txiklerik.*

*2. Neuk esan dotsut hori-ta! / Berdin da, baiña!*

***Sarituak: Kontxi Laskurain eta Amaia Pildain***

**Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburutegixan, DATORREN EGUAKITZA BAIÑO LEHEN.**

Erantzun zuzenen artian **5.000** pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburuaren ale bat zozketatuko dittugu hamabostero.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

DEKORAZIOA ABAD PINTURAK ANTZUOLA PAPER PINTATUAK
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

GOROSTI
Taberna
☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

Alaitz Jauregi eta Aitziber Goñi

# "Domekan egongo da zinia"



*Aitziber eta Alaitz arduratuko dira aurtengo zine emanaldiez.*

**Aitziber Goñi eta Alaitz Jauregi dira zine emanaldien arduradun berriak. Lehen ere ibiliak dira lan honetan. Aurten igandetan soilik egongo da saioa.**



B

**Nolatan animatu zarete ardura hau hartzera?**

Aurreko arduradunak, Maki eta Xabi, urtetan ibilli izan dia eta geu be pare bat urtetan ibilli gara. Azkenian, aldaketia egittia erabaki giñuan.

**Zer atsegin duzue?**

Umiekin ibiltzia. Oso dibertiduak die. Aktoriak muxukatzen baldin badie zarataka hasten die "gol!" esanaz. Ondo pasatzen dabe eta guk pe bai.

**Aurten ez da Gazinemarik egongo?**

Ez. Oso jente gutxi etortzen zan ostiraletan. Aurten domeketan bakarrik egongo da zinia. Hala be, estraordinarixoren bat egittia eztau kentzen horrek. Iaz "Titanic" pelikuliakin egin giñuan hori.

**Zenbat ume etortzen da?**

Lehenengo astian 50etik gora etorri zien eta jun zan domekan, berriz, 8ottik gora. Normalian asko etortzen die. 6-14 urte bittartekuak dia gehixenak. Txikixenak batzutan gurasuekin etortzen die.

**Zein da egitaraua?**

Aurten marrazki bizidunak eta bestelako pelikulak nahastuko dittugu. Domekan "Bichos" pelikulia ipiñiko dogu.

**Eta euskarazko filmak?**

Eztago eskaintzarik. Darenak oso txikixendako dia; bestela azpititulatuekin; hori umiendako etxaku gustatzen.

**Zenbat da sarrera?**

Aurten 175 PTA balio dau, iaz baiño bost duro gehixago. ■

## IDOLAZEN BATZARRA

Idolaz euskara taldeak bilera berezia antolatu du azaroaren 20rako. Orain arteko jardunaz eta aurrera begira egin beharrezkoaz jardungo dute udal liburutegian. Ordubeteko batzarra izango dela adierazi digute Idolazekoek. Goizeko 11:00etatik 12:00etara. Antzuolar guztiak gonbidatzen dituzte.

## MENDI HAMABOSTALDIA

Arrolak antolatu duen mendiaren hamabostaldiaren barne, hainbat ekitaldi prestatu dute. Horietako bat izango da "Islandia oinez" diapositiba emanaldia. Angel Cuerdok eskainiko du zinetokian, martitzenean, hilaren 23an. Saioa arratsaldeko 19:00etan izango da, baina ez da emankizun bakarra izango. "Ene erraietara" diapositiba emanaldia eskainiko du eta Jose Ramon Agirre, "Marronek" eguenean, hilaren 25ean. Arratsaldeko 19:00etan izango da, hau ere, zinetokian. "Marron" behin baino gehiagoan izan da Antzuolan horrelako saioak eskaintzen eta guztietan harrera bikaina izan du argazkilari honek.

Emanaldiez gain, erakusketa ere antolatu dute. Zapatuan, azaroaren 27an, eta domekan, hilaren 28an, udaletxean jarriko du ikusgai Marronek argazki erakusketa. Ordutegia ohikoa izango da: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00, bi egunetan.

## TXOTXONGILO SAIOA

Teatro de la Luna antzerki taldeak txotxongilo emanaldia eskainiko du azaroaren 27an, zapatuan. "Elmer elefantea" izeneko lana antzeztuko dute, arratsaldeko 18:00etatik aurrera zinetokian. Emanaldia 3 eta 8 urte bitarteko haurrentzat izango da.

## MENDI IRTEERA

Arrola Mendizale Elkarteak Jarindora irteera antolatu du hurrengo domekarako, hilak 28. Izen ematea Arrolaren egoitzan izango da astelehenean, azaroaren 22an, 19:30-20:00.


**AITZ-GARBI**

taberna jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak. Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

**LEKU-BERRI MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

Arin JATETXEA

Euskal sukaldaritza

Eguneko menua

Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

Igor eta Txomin C.B.

Margoak orokorrean

ANTZUOLA 609 157 131

BERGARA 609 150 164

# Plana egiten duzunean...

jam



## JATETXEA

EGUNEKO MENUA 1.000 PTA

Astelehenetik eguakitzera, 12:30-15:30





## GO-JAM

IKUSKIZUNAK, ANTZERKIAK, KONTZERTUAK...

Eguenetik domekara, 22:00-04:00

**eskaintza** berriak!

## DATOZEN KONTZERTUAK

ROSENDO: Azaroaren 20an, zapatua, 23:30. 1.700 PTA -2.000 PTA takilan

RAGE+ NIGTHWISH: Azaroaren 27an, zapatua, 22:00. 2.300 PTA -2.500 PTA takilan

ENRIQUE BUNBURI: Abenduaren 6an, astelehena

APOLO FOUR FORTY: Abenduaren 10ean, eguakitza, 22:00. 2.500 PTA

SIN CITY SIX (Pleasure Fucker ohia): Abenduaren 17an, eguakitza

LOQUILLO: Abenduaren 18an, zapatua

**Deitu** eta eman izena!





## IKASTAROAK

SALTSA-MERENGEA: martitzenetan 20:00-21-30

SEVILLANAK: eguaztenetan 18:30-19:30 eta 19:30-20:30

jam

Santalaitz 5. 943 76 35 81

# Gurasoak umeen jolas eta kantak ikasten

## Udaleko Euskara eta Prebentzio zerbitzuek antolatutako ikastaroan

**Euskararen iraupenerako faktorerik inportanteena gurasoengandik haurrenganako trasmisioa da. Gurasoek oso paper inportantea dute haurren euskararen jabekuntzan. Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Drogomenpekotasunaren Prebentzio Zerbitzuak kontuan hartu dute hori eta trasmisio horretan asko erabiltzen diren kanta eta jolasak hartu dituzte oinarri gisa gurasoendako antolatutako ikastaroan.**



*«Arre arre mandako,*
*bihar Tolosarako,*
*etzi Panplonarako.*
*Handik zer ekarriko?*
*Zapata ta gerriko.*
*Haiek zeinentzako?*
*Etxean dagoenarentzako»*

Hauxe izan daiteke ohizko "arratsaldeon" hitzaren ondorengo agurra jolas eta kanta ikastaro honetako edozein klasetan. Kanta hau edo helduontzat ez baina haurrentzat oso ezaguna den beste bat.

Horrela hasten ditu klaseak Larraitz Madinabeitiak umeen jolas eta kanta ikastaro honen arduradunak. Astean bi egunetan, astearte eta ostiraletan, ari da ematen ikastaro berezi hau, ordu eta erdiko iraupeneko hiru klasetan banatuta, Mariaren Lagundian, Aranzadin eta San Martin ikastetxeetako geletan.

Berezia da, umeen jolas eta kantak landu arren, gurasoei zuzenduta dagoelako. Hogeita hamaika dira ikasleak. Horietako bat bakarrik da gizonezkoa. Hasieran, matrikula-epea ireki zenean, 70etik gora gurasok eman zuten izena, aita zein amek. Baina antolaketa-arrazoiengatik jarri diren ordutegiak ondo ez datozkielako edo klaseak euskaraz ematen direlako, askok atzera egin dute eta aipatutako ikasle-kopuruan finkatu da ikastaroa.

### JOLAS, KANTA ETA BESTELAKOAK

Urriaren bigarren astean hasi ziren klaseak eta ordutik hainbat abesti landu da, hasi seaska-kantekin eta eskolaurreko umeek ezagutzen dituzten "Txalo pin txalo" edo "Triki traka" bezalakoekin jarraituz. Tartean, mimoa erabiltzen dutenak, behatzekin egitekoak edo gorputzeko atalak lantzekoak. Geroago, jolasak, dantzak eta korroak etorriko dira. Orain arte aipatutakoak haur txikiak kontuan hartuz landu ditu Larraitzek. Baina nagusiagoak ez ditu ahaztuko eta 4. edo 5. mailakoen artean egiten diren soka-saltoak, pasabideak, zotz egiteko formulak eta asmakizunak ere landuko ditu. Guztia euskaraz.

Eduki aldetik nahiko betea dago ikastaroa. Eta guzti hori emateko 10 saio besterik ez dira izango. Lehenengo biak, gainera, teorikoak izan ziren, hizkuntzaren gaiarekin lotutako hitzaldia bata eta prebentzioaren gaiaren ingurukoa bestea. Ikastaroa antolatu duten Udaleko bi zerbitzuek, Euskarakoak eta Prebentziokoak eskainitakoak izan dira. Gainerako saioak praktikoak dira, oraintxe azaldutako eduki-mota lantzen dutenak.

Helburua, berriz, gurasoei bere seme-alabekin euskaraz jolas egiteko baliabideak eskaintzea da eta baliabide horien bitartez, umeen emozio-heziketa bultzatzea eta umeen eta familikoen arteko afektibitatezko lotura indartzea.

Eta gurasoen euskararen ezagupena muga izan ez dadin, ikastaroa bitan banatzea erabaki da. Orain ematen ari dena guraso euskaldunei zuzenduta dago eta euskara ondo menperatzen ez dutenek edo ez dakitenek urtarrilean izango dute beste aukera bat. Ikastaro hau gurasoentzat da, baina Euskara Zerbitzuak ez ditu haurrak ahaztu.



Umeen jolas eta kantak ikasten ari diren ama batzuk eta irakaslea, Larraitz Madinabeitia, eskuman.

Aurreko orrialdean: Mariaren Lagundiko errefortzu-saio batean umeak jolasean.

**UMEEN EUSKARA-MAILA**

Izan ere, ia haur guztiek ikasketak D ereduan burutzen badituzte ere, zenbait arrazoirengatik guztiek ez dute lortzen behar besteko euskara-maila eta laguntza behar dute.

Hori dela eta, orain dela sei urte hasi ziren herriko ikastetxeetan euskara-maila apalekoentzako euskera hobetzeko errefortzu-saioak. B ereduan ari direnentzat edo guraso erdaldunak dituztenentzat dira saio berezi hauek.

Errefortzuak San Martin ikastetxean eta Mariaren Lagundia ikastolan ematen dira, baita Gartzela Zaharrean ere, bi zentroko ikasleak elkartuta. Saioak arratsaldez izaten dira, klase-orduetatik kanpo.

Azken bi ikastetxeetako errefortzu-saioetan 100 bat haur biltzen dira guztira, 1. mailatik 6. mailara bitartekoak. Mailaren arabera taldeetan banatuta daude eta talde bakoitzak astean bi ordu izaten ditu. Saioak jolas eta eskulanetan oinarritzen dira, horien bitartez euskararen ulermena eta mintzamena lantzen direlarik.

Orain dela sei urte jarri zuen martxan programa hau Udalak bere Euskara Zerbitzuaren bitartez, baina gaur egun Jardun elkartearen esku laga da bere antolaketa, finantziazioa oraindik Udalaren gainean badago ere. Ana Belen Carpintero da aurten arduraduna, eta 14 eta 17 urte bitarteko hogeita hiru begiraleren laguntza du.

Aranzadi ikastolak bere kontura eskaintzen ditu errefortzu-saioak.

**AKATSAK ZUZENTZEN**

Eta euskararen ezagutzaren inguruan guraso zein ikasleak batzen dituen programa bat ere badu martxan Udaleko Euskara Zerbitzuak. Akats ohizkoenak zuzentzeko herri-mailako programaz ari gara, herriko ikastetxe eta bailarako Pedagogia Aholkutegiarekin batera antolatutakoaz.

Programa hau orain dela bi urteko urritik dago martxan eta euskararen erabilera areagotzea eta kalitatea hobetzea du helburutzat. Horretarako ikastetxeaz gain, kanpoko eragileak ere inplikatzen dira, adibidez, gurasoak, eskolaz kanpoko ekintzak eta aisialdia .

Metodologia oso sinplea da. Ikasturtea hartzen duen programa bat denez, ikasturterako akats-zerrenda bat aukeratu eta horiek zuzentzeko ekintzak burutzen dira, hala nola, zuzenketak erakusten dituzten komikiak paretetan esegitea, klaseetan akatsak eta dagozkien zuzenketak lantzea, gurasoei akats eta zuzenketa horien berri ematen dituzten gutunak bidaltzea, e.a.

Aurtengo ikasturtean ez da oraindik martxan jarri programa, baina prestatzen ari dira landuko diren akatsen inguruko materiala urtarrilean abian jartzeko.<

**Bergarako 31 guraso bere seme-alabekiko lotura afektiboa estutu nahian, umeen kanta eta jolasak ikasten hasi dira urrian**

GAZTELU
BURDINAKI DENDA
Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Matxiategi Elektragintza S.L.
ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA
Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

# Xabier Albisua eta Patxi Vallejos fronteniseko txapeldunak

**Xabier Albisuak** eta Patxi Vallejosek osatutako bikoteak irabazi zuen domekan Angiozarko Arbiaska pilotalekuan jokatutako frontenis txapelketako finala, Jose Izquierdo eta Candido Hurtado arrasatearrei 30 eta 17ko emaitzarekin nagusitu ondoren. Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatutako txapelketan 14 bikote izan dira lehian, eta astebukera honetan jokatu ziren finalaurdenak, finalerdiak eta finala. Hirugarren eta laugarren posturako partiduan, Iñaki Sanchez eta Kepa Garcia arrasatearrek 30 eta 23ko emaitzarekin irabazi zieten Carmelo Barcala eta Alejo Garcia bergararrei.



Argazkian, frontenis txapelketan saritutako bikoteak. UGARTEBURU

Txapeldunek zapatuko partiduetan zailtasun gehiago izan zituzten finalean baino, finalaurdenak eta finalerdietako partiduak oztaozta irabazi baitzituzten, biak ere 25 eta 24ko emaitzarekin. Finalerdietan Barcala eta Garcia 22 eta 13 aurreratu ziren, baina Albisuak eta Vallejosek buelta eman zioten markagailuari. Finalean, berriz, askoz hobeto jokatu zuten eta, ondorioz, nahiko erraz lortu zuten garaipena. Iaz ere Vallejos eta Albisua izan ziren txapeldunak.

# Mikel Arakistain Gipuzkoako txapelduna

**Mikel Arakistainek** kadete mailako Gipuzkoako karate txapelketa irabazi zuen domekan Usurbilen, 70 kilo bitartekoen mailan. Bere mailako pisuan 12 partaide izan ziren lehian eta Mikelek (17 urteditu) lau borroka izan zituen garaipena eskuratu baino lehen. Bergararra sasoi onean dabil, joan zen urriaren 16an, Gipuzkoako selekzioa ordezkatuz, bigarren geratu baitzen Basaurin jokatutako Euskadiko Kopa Txapelketan. Joan zen domekan Usurbilen garaile izan ondoren, datorren abenduaren 18an Bergaran bertan jokatuko den kadete eta junior mailako Euskadiko Txapelketarako txartela lortu du Mikel Arakistainek. Bertan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako karateka onenen aurka neurtu beharko ditu indarrak.



## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

**Bergara-Santurtzi**
Hirugarren maila
Zapatua. 15:30. Agorrosin

**Bergara-Aitzgorri**
Infantilak
Domeka. 10:00. Ipintza

**Bergara-Antzuola**
Bigarren mailako jubenila
Domeka. 11:30. Ipintza

**Bergara-Ondarruko Aurrera**
Lehen mailako jubenila
Domeka. 15:30. Agorrosin

**SASKIBALOIA**

**Bergara-Atletico SS**
Kadete mutilak. Mariaren Lagundia
Domeka. 10:30

**Bergara-Zarautz**
Junior mutilak. Mariaren Lagundia
Domeka. 12:15

**ESKUBALOIA**

**Bergara-Urnietako**
Kadete neskak. Kiroldegia
Zapatua. 16:15

**Bergara-Leizaran**
Jubenil neskak. Kiroldegia
Zapatua. 17:30

**Bergara-Aloña Mendi**
Jubenil mutilak. Kiroldegia
Domeka. 12:15

**ARETO FUTBOLA**

**Bergara-Oiartzun**
Senior mutilak. Kiroldegia
Eguakitza. 22:30

**PILOTA**

**KLUBEN ARTEKO TXAP.**

**Bergara-Oiartzun**
Seniorrak (banaka)

**Bergara 1-Zumarraga**
Bigarren mailako afizionatuak

**Bergara-Zestoa**
Kadeteak

**Bergara 2-Eskoriatza**
Bigarren mailako afizionatuak
*Gaur, eguakitza, 18:30etan*
*Antzuolako pilotalekuan*

**CAFE BAQUE TXAPELKETA** Finala
**Dominguez (Arrasate)-Jauregi (Soraluze)**
*Martitzenean, 20.15etan,*
*Udal Pilotalekuan*


PISZINETAKO TABERNA
Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak
*Boni Laskurain z/g*
*Tf. 943 76 53 55*

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

FRONTOI

TABERNA
Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

# Labegaraietako futbito txapelketa

## PARTIDUAK

**ZAPATUAN BARRUAN**

| | |
|---|---|
| **09:30:** Ion Autoak-Shaktale | **Uve Bikoitza** |
| **10:30:** Uve Bikoitza-Buya | **Shaktale** |
| **19:00:** Vacalouras-A Ze Flaxa | **Soropotroak** |
| **20:00:** Soropotroak-Torrekua | **A Ze Flaxa** |

**ZAPATUAN KANPOAN**

| | |
|---|---|
| **12:30:** Patatus-Bayer | **Buya** |

**DOMEKAN BARRUAN**

| | |
|---|---|
| **09:00:** Bar Canalejas-Txipiron | **Guadalest** |
| **10:00:** Guadalest-Errotagain | **Bar Canalejas** |
| **11:00:** Agiñaspi-Ortzi | **Bar Canalejas** |
| **16:00:** Artusamak-Fac | **Aterpe** |
| **17:00:** Aterpe-Ufala | **K. Piperrak** |
| **18:00:** K. Piperrak-Xurrupak | **Azpeitxi** |
| **19:00:** Azpeitxi-Mo(ko)lotov | **Amoskibar** |
| **20:00:** Amoskibar-Bildurbarek | **Mo(ko)lotov** |

**DOMEKAN KANPOAN**

| | |
|---|---|
| **12:00:** Ari Ari-Sirimiri Eri | **Bar Canalejas** |
| **16:00:** Etengabe-Irubide | **Agirrebeña** |
| **17:00:** Agirrebeña-Tom Cat | **Patxaran Team** |
| **18:00:** Patxaran T.-Mongatxurrak | **Tom Cat** |

## EMAITZAK

| | |
|---|---|
| **A MULTZOA** | |
| Sirimiri Eri- Etengabe | **6-2** |
| La Juve-Pagomendi | **2-8** |
| Ari Ari-Pinturas Bergara | **4-5** |
| **B MULTZOA** | |
| Patatus-Amozkibar | **5-8** |
| Mongatxurrak-Agirrebeña jatetxea | **1-0** |
| Tom Cat-Amilotx | **5-1** |
| Bildurbarek-Patxaran Team | **8-2** |
| Urrutxurtu-Bayer | **4-5** |
| **C MULTZOA** | |
| Ion Autoak-Agiñazpi | **3-0** |
| Soropotroak-Ortzi | **3-4** |
| A Ze Flaxa Etxagi-Shaktale | **7-3** |
| **D MULTZOA** | |
| FAC-Ufala | **13-1** |
| Aterpe-Bar Canalejas | **1-6** |

## GORA ETA BEHERA

**B multzoko taldeak eta Canalejas**
B bultzoan gauzak oso parekatuta daude eta sailkapeneko aurreneko tokietan dauden taldeek (Urrutxurtu izan ezik) euren partiduak irabazi zituzten. Bestalde, Canalejas iazko kopako txapelduna 6 eta 1 nagusitu zitzaion Aterperi.

**Amilotx, Ufala eta Shaktale**
Amilotxek 1 eta 5 galdu zuen Tom Cat Argandolasen aurka eta Ufalak goleadarik handiena jaso zuen, 1-13 FAC taldearen aurka. Shaktale, berriz, ez dabil fin azkenaldian.

**ARGI!**

**Zigor ugari**
Ion Autoak taldeari 3 puntu kenduko zaizkio arbitratzera ez agertzeagatik. Bayer taldeko Akamal jokalariari partidu bateko zigorra eta Tom Cat taldeko Jon Ortiz de Zarateri bost partidukoa ezarri zaie.

## SAILKAPENAK

**A multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Pagomendi | 24 | 8 |
| 2. | Azpeitxi jatetxea | 18 | 7 |
| 3. | Irubide jatetxea | 13 | 7 |
| 4. | Sirimiri Eri | 13 | 7 |
| 5. | Ari Ari | 7 | 7 |
| 6. | Mo(ko)lotov | 7 | 7 |
| 7. | Pinturas Bergara | 6 | 8 |
| 8. | La Juve | 6 | 8 |
| 9. | Moskis | 6 | 7 |
| 10. | Etengabe | 6 | 8 |

**C multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | A Ze Flaxa Etxagi | 21 | 7 |
| 2. | Ortzi | 15 | 7 |
| 3. | Uve Bikoitza | 13 | 7 |
| 4. | Vacalouras | 10 | 7 |
| 5. | Shaktale | 10 | 7 |
| 6. | Agiñazpi | 9 | 7 |
| 7. | Buya | 7 | 6 |
| 8. | Ion Autoak | 6 | 7 |
| 9. | Soropotroak | 3 | 6 |
| 10. | Torrekua | 3 | 7 |

**B multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Mongatxurrak | 17 | 7 |
| 2. | Bayer | 14 | 7 |
| 3. | Urrutxurtu | 13 | 7 |
| 4. | Bildurbarek Opel Lam | 12 | 7 |
| 5. | Amozkibar | 12 | 6 |
| 6. | Tom Cat Argandolas | 9 | 7 |
| 7. | Patxaran Team | 7 | 6 |
| 8. | Amilotx | 6 | 7 |
| 9. | Agirrebeña Jatetxea | 6 | 7 |
| 10. | Patatus | 0 | 7 |

**D multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Errotagain | 18 | 6 |
| 2. | Artusamak | 16 | 6 |
| 3. | Bar Canalejas | 15 | 7 |
| 4. | Guadalest | 12 | 6 |
| 5. | Xurrupak | 11 | 6 |
| 6. | FAC | 11 | 7 |
| 7. | Txipiron | 7 | 7 |
| 8. | Aterpe | 3 | 7 |
| 9. | Ufala | 3 | 7 |
| 10. | Komando Piperrak | 0 | 7 |

Informazio hau babesle hauei esker:




**OGIZUN**
**koop. elk.**
**okindegia**

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga z/g
OÑATI
943 78 24 13



Irizar 2
☎ 943 76 14 95
**JAUJA KIROLAK**


## mahoneroak



**MARKEL EGAÑA**
**Bergarako atezaina**

Soduperen kontrako garaipena, egia esan, uste baino errezago lortu genuen. Sodupek talde nahiko flojoa daukala irudi zitzaigun, domekan behintzat ez zuen gauza handirik egin eta.

Gure entrenatzaileak bizkaitarrek nahiko erritmo geldoan jokatzen zutela eta beraien erritmoaz ez kontajiatzeko eta baloia azkar mugitzeko agindu zigun eta taktika ondo atera zitzaigun.

Partidua hasi eta berehala aurretik jarri ginen markagailuan, Oxel Apraizek euren atezainak egindako huts bat aprobetxatu ondoren eta gero Jokin Mendiaratzek bigarrena egin zuen areaz kanpotik. Bigarren zatiaren hasieran, berriz, Gorka Dueñasek *txilena* batez gol ederra sartu zuen, partidua erabakiz.

Garaipen inportantea lortu genuen eta, sailkapenean asko ez igo arren, erdialdeko taldeekiko zulorik ez egitea lortu dugu behintzat. Ea Santurtziren aurka bide onetik jarraitzen dugun.

**Otsein Saria**

Sailkapen orokorra

**Mikel Osoro** ...... **4 puntu**
**Josetxo Lizarralde** . **3 puntu**
**Asier Rodriguez** ... **3 puntu**
**Markel Egaña** ..... **3 puntu**

*Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.*

kronika: **senior mailako saskibaloi taldea**

# Hirugarren garaipena jarraian

| | |
|---|---|
| BERGARA | 73 |
| ZUASTI | 68 |

**Bergara:** Mikel Etxeberria (7 puntu), Gorka Unzueta, Iñigo Ziarsolo (26), Igor Urisabel (12), Jesus Morais (3) -hasierako boskotea- Gorka Eraña (2), David Urbina (4), Iban Herzog (11), Alex Aranzabal, Mikel Artola (8) eta Unai Iñarra.
**Partzialak** (bost minutuero): 7-12, 12-23, 23-33, 38-37 (atsedenaldia), 42-44, 45-49, 55-53.



Saskibaloi taldea Labegaraietan ateratako argazkian.

Ligako lehen lau partiduak galdu ostean, Bolsos Bergara senior mailako gizonezkoen taldeak azken hirurak jarraian irabazi ditu, zapatuan Zuastiri bost puntuko aldearekin nagusitu zitzaiolarik. Fernando Moretonek eta Alex Familiarrek zuzentzen duten taldeak gogor lan egin behar izan zuen zapatuko garaipena eskuratu ahal izateko. Lehen zatian bisitariek eraman zuten jokoaren pisu gehiena eta bergararren defentsak arazo bat baino gehiago izan zuen naparren erasoak gelditzeko orduan. Hamaika puntuko aldea ere euren alde izan zuen Zuastik baina etxekoen erreakzioak buelta eman zion partiduari. Naparren taktika ikusirik, Familiarrek eta Moretonek bere jokalariei zonan jokatzea agindu zieten eta horri esker 19-6ko partziala lortu zuen Bergarak, lehen zatia etxekoen aldeko puntu bateko diferentziarekin amaituz.

Bigarren zatia oso berdintsua izan zen eta bi taldeek markagailuan alternatibak izan zituzten. Bergarar jokalariek asmatu egin zuten tiro libre jaurtiketetan eta, horrez gain, Iñigo Ziarsolok egindako partidua goraipatu behar da, 26 puntu lortu baitzituen eskolta bergararrak. Azkenik, liga hasieran falta izan zitzaien zortea euren alde izan zuten etxekoek eta garaipen oso garrantzitsua lortu zuten sailkapeneko laugarren tokian zegoen Zuastiren aurka.

Bihar, zapatua, Tolosaren aurka jokatuko du Bolsos Bergarak eta partiduak erabateko garrantzia dauka etorkizunari begira, tolosarrak arerio zuzenak baitira jeitsiera postuak ekiditzeko lehian. Bergarak talde gaztea dauka eta, Alex Familiarren arabera, aurtengo helburu nagusia kategoriari eustea da.

## JOKIN ETXANIZ / Pilotaria

## "Ligillako arerioei gauzak zailak jarriko dizkiet"

**Lau t'erdiko txapelketaren barruan, Jokin Etxanizek ustekabe handia eman zuen domekan Titin III.ari 22 eta 10eko emaitzarekin irabazi ondoren. Adarraga pilotalekuan partidu borobila egin zuen bergararrak.**

G. Zein izan zen domekan Titin menderatzeko klabea?
E. Banekien ahal zuen guztietan Titin airez sartzen ahaleginduko zela eta botera sartzeko behartzen saiatu nintzen. Partidu osoan zehar Titin eroso ez egotea lortu nuen eta niri gauzak ondo atera zitzaizkidan.
G. Zuretzat sorpresa izan zen Logroñon Titini irabaztea?
E. Partidua irabaztea baino azken emaitza izan daiteke harrigarriena. Beharbada Titinek ez du denbora gehiegi izan partidua behar bezala gertatzeko. Bestalde, niri ere asko gustatzen zait Adarraga pilotalekua eta domekan oso gustora jokatu nuen.
G. Faborito asko geratu dira bidean eta final laurdenetako ligillan zaitugu...
E. Nagore, Berna eta Errandonearen multzoan tokatu zait. Ni baino kolpe gehiago duten jokalariak dira. Badakit ezinezkoa zaidala txapelketa irabaztea baina gauzak zailak jartzen eta ahalik eta ondoen jokatzen ahaleginduko naiz. Orain arte ikusi da izenarekin bakarrik ez direla partiduak irabazten.
G. Zein da zure faboritoa?
E. Guztion ahotan Eugi eta Nagore daude, baina txapelketa zela doan ikusita, besteren batek ere sorpresa eman dezake.



# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

***Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!***


1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak


## 1. ETXEBIZITZAK

### SALDU

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Antzuola. 943 76 65 65.

Zubieta. 943 76 07 60.

### EROSI

Pisua erosiko nuke Matxiategi inguruan. 649 275 436.

### ERRENTAN EMATEKO

Laredoko plaian pisua errentan, abenduko zubian. 619 80 91 69.

### ERRENTAN HARTZEKO

Bergaran edo inguruan. 943 76 03 31.

Bikote batek Bergaran edo Arrasaten pisua hartuko luke errentan. 619 15 44 06 (Fran).

Bergara. 943 76 56 51.

Irakasle batek pisua alokairuan hartuko luke. 943 76 22 77.

### ETXE KONPARTITUAK

Jacan, ski denboraldian, pisua konpartitzeko jendea behar da. 617 85 71 19.

Etxea konpartituko nuke. 619 39 34 01 (Txomin).

## 2. GARAJEAK

### SALDU

Garajea salgai Torrekuan. 943 76 00 93.

Garajea salgai Ibargarain. 943 76 44 25.

Martzial Agirren garaje bikoitza salgai. 943 76 33 88.

Antzuolan, Lizarragan, salgai edo alokairuan. 670 49 87 40.

Koldo Eleizalde. Deitu 943 76 36 34 telefonora.

Garajea salgai Torrekuan. 943 76 28 24/ 39 49 78.

Garajea salgai Bolun. 943 76 19 69.

### ERRENTAN EMATEKO

Burdiñaten, alokairuan edo salgai. 943 76 02 34.

### ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokala (50-70 m²) errentan hartuko nuke Antzuolan edo Bergaran. 943 76 62 63.

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

## 3. LOKALAK

### SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

### EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m² . 607 82 53 06.

### ERRENTAN EMATEKO

Uberan, biltegirako aproposa. 80 m². 943 76 30 84.

## 4. LANA

### ESKAINTZAK

Administratibo edo idazkari lanak. Esperientzia. 943 76 35 95.

Emakumeak etxeak garbitu eta edadetuak zaindu. 943 76 09 33.

Umeak zaindu arratsaldez. 943 76 34 48 (Mayra).

Etxeko lanak, haurrak zaindu edo dendari lanak. 943 76 60 56 (Joana).

Neska edozein lanetarako gertu. 943 76 00 24.

Esperientziadun tabernaria. 630 86 52 18.

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. 943 76 54 20 (Nerea).

Astebukaeran lan egingo nuke. 943 76 44 04.

23 urteko mutila laneko gertu informatika arloan. 619 15 44 06 (Fran).

Klinika laguntzaileak gaisoak edo zaharrak zainduko lituzke. Deitu 609 77 01 33 telefonora (Asis).

Haurrak zaindu edo dendari lanak egingo nituzke. 943 76 54 48.


**Aldoka Maldoka**
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

HIRU BIDE
JATETXEA-BENTA
Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

IGELTSERITZA
BIAK, S.L.
IGELTSERITZA
A. Fleming 5
BERGARA
Mobilak:
907 44 50 38
907 46 57 38

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29

ION SUINAGA

argazki-erakusketa
NAHIKARI taberna
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 7

### ESKAERAK

Neska behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 05 55.

Etxeko lanak egiteko neska, 9:00etatik 14:00-etara. 943 76 01 80.

Esperientziadun neska andra edadetua zaintzeko. 943 76 07 24 (gauez).

Etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Deitu 943 76 31 11 telefonora.

## 5. IRAKASKUNTZA

### ESKAINTZAK

Majisteritzan diplomatuak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 57 70.

Kitarra. 943 76 45 73.

Ingeleseko majisteritzan diplomatuak klaseak. 943 76 21 09.

Solfeo eta piano klaseak. 943 76 72 69.

### ESKAERAK

Enpresaritza mailako matematikako klaseak hartuko nituzke. Deitu 943 76 33 29 telefonora.

## 6. IBILGAILUAK

### SALDU

Renault 5 (SS-P). 125.000. 943 76 26 19.

Ford Transit furgoneta (SS-AP) egoera onean. 943 76 02 55 (Karmelo).

Suzuki S1413 kotxea, 4 errobera eta lona opari. 943 78 14 72.

Opel Corsa. Merke eta ondo. 943 76 02 89.

Suzuki GS 500 E motorra. 943 76 31 52.

Suzuki DR 650 motorra. 943 76 52 08 (Sonia).

Volkswagen Golf GTI (SS-AB). 943 76 45 13.

## 7. ANIMALIAK

### BESTELAKOAK

Hiru txakur ar eta eme bat emateko. Borondatea. 943 76 49 09.

## 8. DENETARIK

### SALDU

Petroleozko estufa berria. 943 76 59 68.

Butanozko sukaldea salgai. 943 76 46 14.

Ekonomika salgai, iturriko zein berogailuko ura berotzeko aproposa. Deitu 943 76 62 36 telefonora.

Apalak salgai. 943 76 25 79 (gauez).

Informatikako eta bulegoko materiala eta altzariak eta ordenagailu portatila. 607 34 46 58.

Play stationa: 3 joku, mandoa. 943 76 52 16.

Chaman piragua, txaleko berezia, pala eta kotxeko barrak. 50.000. 943 77 01 74 (Felix).

Airwalk snowboarda (1,55 m.) eta fijazioak salgai. 943 76 45 07.

Bizikleta-rodillo finkoa. 943 75 23 79 (Ana).

Kerosenozko estufa ia berria. 943 76 01 99.

### EROSI

Lehengo Peugeot 306 deportiboranko llantak behar ditut. 943 76 08 26.

### EMAN

Umeendako bi aulki eta kotxerako beste aulki bat oparitzen ditut. Deitu 943 78 70 07 telefonora.

Umeentzako bi aulki eta autorako beste aulki bat opari. 943 78 70 07.

### HARTU

Sukalderako armairua beharko genuke. Deitu 943 76 11 98 telefonora.

### GALDU

Erlojua galdu nuen urri erdialdera. 943 76 29 74.

Zilar koloreko bizikleta desagertu da Ipintza inguruan. 943 76 56 31.

Urrezko pultsera galdu da, Mari Carmen izena eta 24-1-61 fetxarekin. Deitu 943 76 38 89 telefonora.

Trango forro polarra galdu dut Matxiategin, gorria eta beltza kolorekoa. 943 76 51 66.

### AURKITU

Urrezko pultsera aurkitu dut Barrenkalean. Deitu 943 76 41 76 telefonora.

## Langai

Euskal Lan Zerbitzua

***INDUSTRIA ANTOLAKUNTZAKO INJINERUA***
Bilbo. 25559/6

***INJINERU TEKNIKOA***
Markina. 25803/2

***INFORMATIKA IRAKASLEA***
Ibai eskuinaldea. 25617/2

***KOMERTZIALA***
Bergar. 25769/6

***KOMERTZIALA***
Zumarraga. 25773/4

***EGITURA MUNTATZAILEA***
Bidasoa Behea. 25901/3

***KALITATEZKO PRODUKZIOKO TEKNIKARIA***
Debagoiena. 25937/0

***GALDARAGILEA***
Ibai eskuinaldea. 25974/2

***INDUSTRIARAKO TUBOGILEA***
Ibai eskuinaldea. 25975/2

***METALEZKO ERAIKUNTZETARAKO MUNTATZAILEAK, 2***
Ibai eskuinaldea. 25977/2

***ELEKTRIZISTAK, 2***
Bilbo. 26069/2

***INFORMATIKA IRAKASLEA***
Bilbo. 24902/3

***INFORMATIKA LIZENTZIATUA***
Donostia. 24924/4

***PRODUKZIO LANGILEAK, 2***
Debabarrena. 25458/1

***TORNULARIA***
Bilbo. 25190/2

***TELEKOMUNIKAZIO-INJINERUA***
Bilbo. 25328/1

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

aul@ XXI
XXI kasgel@
multimedia eta animazioa · diseinu grafikoa · internet, web · diseinu industriala · ofimatika · photoshop · maketazioa · infografia 3D
943-76 59 20
Zure ikasketa zentru berria
Matrikula zabalik!
Irakasle bat taldeko ikasleko ordenadore bana
Matrikula zabalik!
Aula XXI, Mintegi kalea, 5 ( tokieder ) 20570 BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

Peque chollo
Umeendako gaien salerosketa
Aurreztu %70a berria bezalaxe erosiz
Erropa (0-16 urte) • Haurdunendako erropa • Osagarriak • Mozorroak • Jostailuak • Liburuak • Bideoak • Kasetak...
Isasi 18, EIBAR 943 20 03 10
Saldu eta erosteko modurik onena
• EZ BOTA
• EZ GORDE
• EZ OPARITU
SALDU!

EUGENIO LACALLE Bergarako Bandako tronpetajolea

# "Atzetik datozen gazteei tokia utzi behar zaie"

**Eugenio Lacallek datorren domekan, Santa Zeziliako ospakizun egunean, esango dio agur Bergarako Bandari, 26 urte bertan pasatu ondoren. Domekan Bandako lagunek omenalditxoa eskainiko diote.**



Eugenio Lacalle atxabaltarrak 26 urte eman ditu Bergarako Udal Musika Bandan.

**G.** Noiz hasi zinen tronpeta jotzen?

**E.** Tronpeta jotzen soldaduzkan hasi nintzen, ejerzitoko bandarako boluntario aurkeztu bainintzen. Hala ere, niri txikitatik gustatu izan zait musika; 13 urterekin fliskornoa jotzen ikasi nuen, tronpetaren antzeko musika-tresna.

**G.** Nolatan atxabaltarra Bergarako Bandan?

**E.** Ni lehenengo Aretxabaletako Bandan aritu nintzen, eta berau desagertu zenean Arrasateko Bandara joan ginen zenbait musikari. Arrasaten ari ginela, Miguel Gonzalezek, orduan Bergarako Bandako zuzendaria zenak, deitu zidan musikariak behar zituela esanez; eta horrelaxe iritsi nintzen Bergarako Bandara.

**G.** Orkestina batean ere jo omen zenuen, ezta?

**E.** Bai, 1958an osatu genuen Calypso taldea sei lagunek, eta 1975era arte aritu ginen ezkontza, dantzaldi eta horrelakoetan.

**G.** Zer sentitzen duzu Banda lagatzean?

**E.** Izugarrizko pena ematen dit, urte asko pasatu baititut bertan eta oso lagun handiak egin ere bai. Baina iadanik 70 urte ditut eta adinak ez du barkatzen. Gainera, gure atzetik datozen gazteei tokia utzi behar zaiela iruditzen zait.

**G.** Asko aldatu al da Banda zu hasi zinenetik hona?

**E.** Bai, izugarri aldatu da. Alde batetik, ni hona etorri nintzenean, duela 26 urte dagoeneko, 30 lagun inguru ginen, eta gaur egun, berriz, 70 musikari baino gehiagoz osatuta dago Bergarako Banda. Eta bestetik, gaur egungo gazteek prestakuntza hobea dute, gaur egun kalitate askoz hobea dago musikarien artean; beno, hori gertatzen da, bai Bergaran eta baita beste banda askotan ere.

**G.** Banda laga arren, ez diozu tronpeta jotzeari utziko, ezta?

**E.** Nire kontura, etxean, ahal dudan bitartean behintzat, ikasten eta entsaiatzen jarraitzeko asmoa daukat, inongo taldetan sartu gabe. Kontuan hartu bizitza osoa daramadala tronpeta jotzen, eta hori, jaikina, ez da horrela, bapatean, uzten.

## S. Zeziliako egitaraua

Santa Zezilia eguna dela eta, datorren domekan, goizeko 11:30etan **kalejira** izango da Txistulari eta Musika Bandarekin.

Eguerdiko 12:30etan, **Musika Bandak kontzertua** eskainiko du pilotalekuan.

Esan, baita ere, Eugenio Lacallez gain, **Xabier eta Maite Agirre** anai-arrebek ere aurten utziko dutela Banda.

Bestalde, hainbat urtetan kultur zinegotzia izan den **Luis Abajo** ez dute ahaztu nahi izan Santa Zezilia egun honetan, eta berari ere omenalditxo bat eskainiko diote.

Astelehenean, azkenik, Santa Zezilia egunean, Musika Eskolak antolatuta, **kalejira** izango da arratsaldeko 17:30etan, eta ondoren **txokolatada** bertako ikasleentzat.

GASTON Y DANIELA
Oihal batek aldatzen du dena
Kruz Gallastegi 3, BERGARA ☎ 943 76 07 37

ARREGI
Eraikuntza materialak
Biltegia Tellerian, Labegaraieta
Tf. 943 76 27 93

**kronika: atari teenage riot eta bad-f line**



Musika gogorra baina izugarrizko espektakulua eskaini zuen talde alemaniarrak.

# Zarata iraultzaileak Jam-en

**Musika erritmo** gogorrak izan ziren nagusi ostiral gauean Atari Teenage Riot eta Bad F-Line taldeen eskutik. Gaueko 22:00ak aldera hasi zuten kontzertua Bad F-Line arrasatearrek. Hasiera batean jende gutxi zegoen arren, alemaniarren emankizuna hasi orduko jende dezente hurbildu zen Jam-era. Atari Teenage Riot talde berlindarrak izugarrizko soinu eta argi-joku espektakulua eskaini zuen, ohi duen bezala. Zaila gertatzen da talde honen musika hitzez definitzea; rock&roll, tecno-punk zein hardcore elektroniko bezala definitu izan da berauen musika. Gauza asko esan izan da talde honi buruz; "zarata makina" edota "zarataren iraultzaile terrorista" bezala ere definitu izan dituzte. Eguakitzean Jam aretora hurbildu zirenek zuzenean baieztatu ahal izan zuten musika zaratarekin parekatu daitekeen arren, zuzenean ikustea pena merezi duen taldea dugula. Hala ere, aretoko arduradunek adierazi zigutenez, espero baino jende gutxiago izan zen, 200 lagun inguru soilik.

## Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako kanporaketa zapatuan Bergaran

**Azpeitia-Landeta** eta **Zumaia** arituko dira aurrez-aurre datorren zapatuan, gaueko 22:00etan Bergarako frontoian jokatuko den final-laurdenetako azken kanporaketan. Sebastian Lizasok, Andoni Larrañagak eta Leire Ostolazak ordezkatuko dute Azpeitia, eta Ion Maiak, Jose Joakin Aizpuruk eta Lizarretak, berriz, Zumaia. Oraingoz, Erniopek eta Zarautzek lortu dute finalaurrekoetarako txartela. Bergarako saioan hirugarren talde bat sailkatuko da. Andoaingo taldea, berriz, puntuazioaren zai geratu da, horrela erabakiko baita zein izango den aurrera jarraituko duen azken taldea.

**erreseinak**




Arantxa Iturbe
***Ai, ama!***
Narratiba

Arantxa Iturbe kazetaria Euskadi Irratiko "Goizean behin" irratsaioko zuzendaria da gaur egun. Baina horretaz gain, ama ere bada. Eta horixe da hain zuzen ere liburu honen funtsa, amatasuna. Amatasunaren alde on eta txarrak, ama izatearen erabakiari buruzko hausnarketak, gizarte honetan amek bete beharreko rolei buruzkoak... Orohar, amatasunari buruzko ikuspegi ezberdin ugari biltzen dituen liburua dela esan daiteke.

- Alberdania. 94 orr. 1.200 PTA



Tapia, Leturia...
***Bizkaiko kopla zaharrak***
Musika herrikoia

Tapia eta Leturia trikitilari ezagunei Xabier Amuriza bertsolaria elkartu zaie Bizkaiko kopla zaharren antologia honetan. Amurizak urte asko eman ditu koplak biltzen, eta berak hautatutako 130 koplei jarri diete musika Tapia eta Leturiak. Entzun daitezkeen kopla gehienak erromeria girokoak dira, baina badira haur koplak eta Gabonetakoak ere. Bestalde, jarri zaizkien doinuak tradizionalak dira, nahiz eta jatorriz, musika tresnarik gabe kantatzekoak diren. Tapia, Leturia eta Amurizaz gain, kolaboratzaile ugari izan du bilduma honek; Natxo de Felipe, Mixel Ducau, edo Igor Elortza esaterako.

- Elkarlanean. 2.200 PTA

Gallastegi
Jostundegia
Mahoizko lanerako jantziak
San Pedro ☎ 943 76 10 85

PB
PINTURAS BERGARA S.L.
• INDUSTRIARAKO PINTURAK
• GARBIKETAK
• APAINKETARAKO PINTURAK
• ERROTULOAK
Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxa: 943 76 11 40.

## denborapasa / LUMA

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | |

### Ezker eskuma

1.Elkarren artean lehian ari direnetako bakoitza. 2. Herri. Zango-atal. 3. Maiz, sarri. Oxigenoa. 4. Kontinente bat. Zurezko pieza laua. 5. Espartako esklabua. Infin., osatu. 6. Infusio-mota. Idortua. 7. Lehenengoa. Ez geza. Iparretarrak. 8. Soldata. Putrea. 9. $H_2O$. Ongi. Interjekzioa. 10. Zein lekutara. Giza gorputzaren zutikako posizioa.

### Goitik behera

1. Baretasun. 2. Lapur. Garai, aldi. 3. Heriotzaren pertsonifikazioa. Gramoa. Röntgen. 4. Irratiko emanaldia. 5. Jardun. Adi ezan! 6. Akabo! Modu atzizkia. Musika nota. 7. Bat. Aurpegiko irekidura. Gor. 8. Gipuzkoako hiriburua. Bokala. 9. Omen. Pl., irudi geometrikoa. 10. Artzainek etxolara eramaten duten janari-kopurua. Bokala. Herri giputza.

*Soluzioa*

*Ezker eskuma*

*1. Lehiakidea. 2. Aberri. Oin. 3. Sarritan. O. 4. Asia. Ohola. 5. Ilota. Osa. 6. Te. Sikatua. 7. A. Gazi. IK. 8. Saria. Saia. 9. Ur. Ondo. Ai! 10. Nora. Oreka.*

*Goitik behera*

*1. Lasaitasun. 2. Ebasle. Aro. 3. Herio. Gr. R. 4. Irratsaioa. 5. Ari. Aizan! 6. Kito. Ki. Do. 7. I. Ahoa. Sor. 8. Donostia. E. 9. Ei. Laukiak. 10. Anoa. A. Aia.*

# bonofotoa





Miguel Angel Elkoroberezibar

***Bergarako alde zaharreko zein kaletan daude bi ateok?***

# galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zein da Bergarako UNED ikastetxeko zuzendaria?
   A- Pello Salaburu
   B- Juan Jose Alvarez
   C- Jaime Montalvo

2. Nor izan zen Amodiozko gutunen lehiaketaren iazko irabazlea?
   A- Jasone Osoro
   B- Luis Fernandez
   C- Xabier Larrañaga

3. Nori irabazi zion Jokin Etxanizek domekan Logroñon, lau t´erdiko txapelketan?
   A- Titin III.ari
   B- Titin II.ari
   C- Goñi II.ari

Super BM
IFA

***Super BM**k emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAk asmatzaileon artean!*



Aurreko aleko saria, **Maitane Mujika**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Maitaneri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Agarre**
Galde Debalde: **1-C, 2-C, 3-A**

**BONOFOTOA** ____________________

**GALDE DEBALDE** 1: ______ 2: ______ 3: ______

Izen-deiturak: ______ Telefonoa: ______

*Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

**Urzantesol**
**Ekilore-olioa, litro bat**
**115 PTA!**
*Super BMen beti eskaintzarik onenak!*

**Moda-kontuetan lehenago hasi bazan fijatzen be, 24 urteko gazte honek orain dala bi urte eta bi hilabete jarri zeban martxan Maya erropa-dendia. Zillar billa Mexikora juten da dendan saltzeko eta jentiakin lan egittia gustatzen jako.**

# Ainhoa Badiola

**Aurtengo neguan gehixen jantziko dana?**
Gehixen saltzen dana panazko eta puntuzko erropia da.
**Zuk zer jantziko dozu gehixen?**
Puntua.
**Nun erosten dozu erropia?**
Gehixena hemen eta gustatzen jatan tokixetan be bai.
**Gustatzen jatzun jantzi bat?**
Segun zertarako eta momentua. Danetik gustatzen jat.
**Sekulan jantziko ez ziñukiena?**
Txandala.
**Diseinatzaile gustokuena?**
Jean Paul Gaultier.
**Definitu zure jazteko modua.**
Koketa jutia gustatzen jat.
**Zenbatero juten zara pelukerixara?**
Hiru astian behin edo.
**Zein da zure illiaren koloria?**
Gaztaina-koloria, argixa.
**Zirugia egittekotan, zein tokittan?**
Inun be ez.
**Zelako gizonak gustatzen jatzu?**
Ba gustatzen jatanak.
**Zertan fijatzen zara lehenbizi gizon batian?**
Izateko eran.
**Asteburu erromantiko bat nun?**
Mexicoko Veracruzen, Catemaco irlan
**Oporrak noiz eta nun?**
Febreruan eta Mexikon batez be.
**Zure defektuik handixena?**
Ausartegia izatia. Baiña nere gauzaik onena be bada.
**Hobby bat.**
Dantza egittia.
**Janari bat.**
Guakamolia.
**Sukaldari ona zara? Zure espezialitatia?.**
Ez, ez daukat ohitturaik. Guakamolia.
**Dietaik egitten dozu?**
Ez.
**Etxeko lanak egitten dittuzu?**
Ez daukat beste erremedixoik.
**Etxian edo kalian egotia gustatzen jatzu?**
Depende, baina etxezalia naiz.
**Bizitzeko toki bat.**
Basarrixa, herrittik urrin.
**Juergazalia?**
Ez, baiña irtetten banaiz, juerga galanta egingo dot.
**Zure lana gustatzen jatzu? Zergatik?**
Klaro. Gustatzen jaten gauzekin eta jentiakin egitten dotelako lan.
**Bergarako bezeruaz zer esango ziñuke?**
Kalidadia gustatzen jako eta nahixago dau pagatzia gauza onagatik.



Bizkotxoak, erreilenoak eta tostoiak
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA
Gozogintzan aintzindari.




Kizkur
Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32



# *Debako hondartzan futbolean*

Nahiz eta kostaldea urruti ez egon, ez da oso ohizkoa Bergarako futbol taldeak "futbol playero" delakoan aritzea. Garai batean Bergara K.E.ko gaztetxoak aritzen ziren Deban antolatzen zen txapelketan eta, dirudienez, ondo baino hobeto moldatzen ziren araian jokatzen. Udazken-negu partean, marea behera zetorrenean futbol zelaiak markatzen ziren hondartzan eta hor arituko ziren Deba arroko gaztetxoak, ilusioz beterik baloiari ostikoka.

Argazkian agertzen den taldeak duela 11 urte inguru jokatutako txapelketan, txapeldunen kopa ekarri zuten Bergarara, eta Realeko taldeari ere irabazi zioten orduan. Bertan agertzen direnek 11 urte izango zituzten garai hartan eta hor ditugu serio-serio, partidu atarian guztiz kontzentraturik. Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Iñaki Birumbrales, Eñaut Unamuno, Gotzon Mendizabal, Iker Beitia, Ekain Manso, Alex Rodriguez, Ion Arrieta, Javi Delgado eta Jose Manuel.

**Makurtuta:** Diego Murillo, Jabi Navas, Asier Lamikiz, Javi Martinez, Igor Alberdi, Eneko Beistegi, Ion Zabaleta, Jose Manuel Martin eta Aitor Guerrero.

**ADI!**

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARAra bertara ekar dezakezu.
Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

izeder
ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak
943 76 71 05. Arruriaga 2

Zumelaga
JATETXEA
54 urte zuen zerbitzura!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25

Gidari onenek

OHOREZKO-MATRIKULA

merezi dute

Aldatu zaitez MAPFREra

Azkartu  itzazu zure bonifikazioak

Orain zure automobilaren asegurua aldatzea ez zaizu ezer kostako. Mapfreren Ohorezko Matrikula Planarekin, oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria). Lor ezazu bonifikaziorik haundiena denborarik motzenean.

MAPFRE

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



TORREKUA

ERRETEGIA

Batik bat arraina • Karta • Eguneko menuak • Goizeko 7:00etatik zabalik





Ibargarai 37 Tf. 943 76 50 99

# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara.
**Diseinua**, **kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.

%25

ADI!
**CAPRI, LINEA FS** eta **COMBO**
sukalde modeloek
**%25**eko beherapena
dute **azaroaren 30era arte**!

AENOR
Produktu zertifikatua

**6** URTEKO GARANTIA

**FAGOR**
**Sukaldeko altzariak**

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak
San Lorentzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefonoa: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.